

TOKIKOM

2013ko otsaila | 123. zenbakia

Armetan!

Roberto Caballero
eta Mónica López,
tiratzaileak

Armetan



Eskontzak

DERIO 2013



94 454 35 25 - Peluquería Soraya Estilistas
94 454 12 23 - Liliak Loradenda
94 601 61 45 - Kopiarte, Centro Reprográfico
94 454 10 54 - Salón de Estética Birixi
608 67 83 19 - Orbea Bus
94 454 14 80 - Foto Celso
94 454 27 97 - Peluquería Bego

Ane Ilapaindegia - 94 454 35 80
Auto Rent, Coches Clásicos - 94 454 51 92
Estética Ederki - 94 454 25 97
Viajes Ecuador - 94 454 17 88
Iaino Mendi Dantza Taldea - 615 73 48 68
Peluquería y Estética Leire Begoña - 94 454 26 32

Eskuratu Zure Deskontuak



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Berazategi, Jose Antonio Lekue, Asier Olazar, Juanjo Ortiz, Xabier Díaz, Sabin Arana, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**


KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



12 Jon Arretxe



16 Korrika 18



30 Zamudioko pilota taldea

- 4 Eritxia**
- 5 Gutunak**
- 6 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Geldoetatik**
- 12 Gurean izan da... Jon Arretxe, idazlea**
- 14 Gaztea eta... Idurre Duarte, artista**
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 18 Roberto Caballero eta Mónica López, tiratzaileak**
- 24 Inauteriak 2013**
- 26 Korrika 18**
- 28 Txorierri ezagutu... Zamudio-Zugasti (II)**
- 30 Elkarreak... Arbolantxa Zamudioko pilota taldea**
- 32 Berbalagunen txokoa**
- 34 Teknologia**
- 35 Aikorrizketan... Geldoetako eskola**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zuretzko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisene, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

**TURREGOTTI
JATETXEA**

Laurietan etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteturregotti.com

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 462 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



JOSE ANTONIO LEKUE
(Baserritarra)

Erraza da baserrian konposta egitea, eta baserri txiki gehienetan egin ere egiten da. Hala ere, azken urteotan, nekazaritza industrialak garatzen hasi zenetik, asko aldatu da egoera. Lehentasuna produktibitateari eman zaio era horretako baserrietan, eta hondakinak bota edo erre egiten dira.

Konposta egiteko moduak hainbat dira, eta gehienak, errazak. Gainera, auke-ratzen den eredia bata edo bestea izan da ere, esango nuke hondakinak zaborte-

gira botatzea edo erretzea baino hobea dela ingurumenerako. Nik dakidala, behintzat, 30 urte baino gehiago dira Europan gai hau aztertzen eta esperimentatzen hasi zela. Eta esperientzia ezberdinek daude nonahi, baserriko edota hiriko hondakinak konpostatzeko.

Baserrietan sortzen diren hondakin guztiak, edo ia guztiak, konposta daitezke: belarrenak, ortuarienak, fruta-arbolen inausketatik sortzen direnak (xehakatuak)... Eta etxeko hondakinak ere konposta daitezke: errautsak eta janariarenak. Gainera, lehen esan dugun moduan, konposta egiten bada, mesedea egiten zaio ingurumenari eta beste helburu bi ere lortzen ditugu. Alde batetik, hondakinak aprobetxatzen ditugu; eta bestetik, lurra ontzen da, hau da, lurrari humusa gehitzen zaio. Era berean, hondakin ezberdinak proportzio egokian nahasten baditugu, askoz ere konpost hobea lortuko dugu. Dena dela, teknikak ezagutu

Konposta

nahi izanez gero, hainbat liburu daude argitaratuta eta informazioa Interneten ere aurki daiteke.

Antzinako baserritarrek ere bazekiten, satsa kortatik solora zuzenean botatzea baino hobea dela hura pilatuta edukitzea. Eta noizbehinka buelta ematen bazaio, askoz hobeto, oxigenatu egiten delako eta zizareek euren lana hobeto egiten dutelako.

Guk ere jarraitu beharko dugu teknikak hobetzen. Eta beste aurrerapauso bat emateko, guztioi interesatzen zaigu etxean sortzen ditugun hondakinak bildu eta konpostatzea. Izan ere, Europako arautegiaren arabera, 2020. urterako etxeetan sortzen den hondakinen % 50 birziklatu beharko da.

Konposta baserrietan ez ezik herriguneetan ere egin daiteke eta, egia esan, toki batzuetan dagoeneko badabilteza konposta egiten. Sekretua konpost-ontzia jartzeko toki egokia bilatzea da.

Ratzinger Aita Santuak orain dela gutxi dimititu izanak agerian utzi du eliza katolikoak hainbat hamarkadetatik hona duen krisi sakona. Hura domeketako mezetan ikusgai dagoen krisia da, gero eta eliztar eta apaiz gutxiago dituzten mezetan. Gelditzen doazen banakak alferrik eta halako egoerak erremediatzen dituen miraririk ez dagoela agertzen dira, aldi berean zenbat parrokiaren beharrez gertatzen diren.

Eliza katolikoak duen bezeroen galera eta bokazioen falta, sakonagoa eta estrukturala den krisi baten izebergaren tontorra dira. Tirania mora-

Tu es petrus...



IÑAKI BERAZATEGI
(Kazetaria)

laren krisia da, azken hamazazpi mendeetan sekta kristau honek historikoki erabili duena, Erromako estatu inperialaren erlijio ofiziala bihurtu zenetik hona.

Eliza katolikoaren boterea, haren eragin politikoa eta soziala, tirania moral horretan hain zuzen ere dago oinarrituta; tirania, hura, mundu osoan zehar milaka pertsonen kontzientzian oraindik eragina duena. Ona da zama hau arrailteza eta kontzientziak askeak izatea, nahiz eta horrek eliza katolikoaren amaiera ekartzen duen. Nigatik bada... infernura joan daitezen!

Aislamientos Derio Tabikeak
Pladurrezko sabaiak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa
Aurtza ibia plaza, 6 - 48160 Derio
T. 670 497 928 - F. 944 941 121
www.aislamientosderio.com

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoi ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Bosgarren edukiontziaz

Gure idazkiaren esparrua gai honetan erreferentziatzeko lehenengo pauso moduan esan behar da idazkiak aitatzen dauan garagarriaren 22/2011 Legea, Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen ganeko Legea dala. Ez dau ezer esaten lur kutsatuen ganean. Datu hori garrantzitsua da, Lege horrek jada kutsatuta dagozan lurzoruen tratamendua aztertzen daualako, eta ez kutsatuko diran lurren tratamendua. Gure ikuspuntutik, hondakin nahiko itxi doguz jada gure Txorierri maitearen lurrean, behingoz ikasi daigun eta egin behar ez doguna gogoan ondo hartu daigun. Eta Txorierri behar ez dauana, bere lurretan edozein motatako hondakin organotik abiatuta sortutako bio-hondakinak sartzea da. Gure apustua, ondo aukeratutako etxeko hondakin organikoak erabiliz lortutako kalidade handiko konpos-ta lortzea izango da beti.

Aitatutako legeak, beste alde batetik Bildukoei betetzea hainbeste gustetan jaken legeak bezala espainiarra dan lege horrek, 22. artikuluko A paragrafoan honako hau dino zehazki: «2020a baino lehen, berrerabilera eta birziklapenerako prestaketan erabili beharreko etxeko eta merkataritzako hondakinen kopurua, paper, metal, beira, plastiko eta bio-hondakinen zatikie-

tarako edo beste zatiki birziklagarri batzue-tarako, danetara hartuta, gitxienez % 50 izan beharko da pisuari jagokonez».

Ez dauka ezelan be zerikusirik Bilduk interpretatzen dauanagaz. Berrerabili eta birziklatu beharreko % 50a, birziklatu eta berrerabili ahal diran hondakinen ganekoa dala dino. Ez zaborraren poltsaren ganekoa. Hori Txorierriko Mankomunidadera eroanda, hau da, irakurrita eta aztertuta, legea betetzen dogula ikusten dogu.

Datozen hilabeteotan Tratamentu Me-kaniko Biologikoaren Instalazioa inaugura-tu ostean, Bizkaia 2013an –Legeak ezar-tzen dauana baino 7 urte lehenago– berre-rabili eta birziklatu ahal diran materialen % 50 baino gehiago berrerabilera eta birzi-klapenerako erabiltzearen helburu hori lor-tuko dau. Eta «0 isurketa gordina» be lortu-ko dau, hau da, etxeko lehen mailako hon-dakin bat be zabortege batera heldu ez dai-tela.

Bide batez, hondakin gitxiago sortzeko programen bitartez zabor poltsaren pisua % 10 murriztu beharko dala be dino. Hor behar handia daukagu danon artean egite-ko, baita erronka bat be.

EAJ/PNVk apustua egin dau sentsibili-zazioaren alde, herritarrak birziklapenaren

garrantziaz konbentzitzearen alde, eta ez inposaketearen alde. Politika horren emoi-tzea da gaur egun bizilagunen % 85ek dagozan edukiontzietan birziklatzen dabela eta % 80 guztiz pozik dagozala birziklope-nerako edukiontziak egoteagaz, adibidez edukiontzi horiagaz. Beharra dago oraindi-no egiteko, baina argi daukagu hori dala bidea.

Zenbakiak, portzentajeak ezartzea oso estetiko da, baina kudeatzea, askoz erreali-tate korapilatsuagoa da.

BHHKPI 2005-2016 da geure Legea. Hori da geure Foru Araua, geure autogobernua. Eta Ezker Batua bazter itxita, abstenidu zanez, Bizkaiko Parlamentuko gainontzeko ordezkariak –gaur egun Bildu koalizioan dagoan EAK be bai– ontzat emon eben. Ber-ton dago barriro zehaztuta zer dan konpos-tajea Bizkaian eta Bizkaiaerentzat.

Txorierri, gaur egungo sistemagaz, planteatu dauan azterlanagaz eta guztion ekarpenakaz, hondakinaren arazoa hobetu ahal badau, hobetu egingo dau eta EAJ/PNVk hori bultzatuko dau.

Ez gara sartuko Bilduk interes politiko eta ekonomikoen gainean egiten dauan probokazioan. Baina galdetu ahal dogu: zer da Garbitania? Nor aritzen da bilketa-sis-tema sinple batzuen aurka dagozan pertso-nak mehatxatzen?

Txorierriko EAJren zinegotziak

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA



Saketeko telefonoa: 967 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✆ faxa: 94 452 26 87
patxiskoop@patxi.coop

LOTERIA LEZAMA



BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILJOIAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARRETALDE, 139 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONUA/FAX: 94 455 64 87

Club Hípico Aretxalde



Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Sahio - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

LEJARRENE JATETXEA



Garaioitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

GOXO-GOXO LOHTIZUN



Arretxaldeko zabalik
Ogile egunero
Pestelek enkargatzen

Garaioitza, 776
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

Putxera Eguna, Loium

Aurten Putxeren Nazioarteko Txapelketa egin da bigarren aldiz Loium. Besteak beste, Sopela, Barakaldo, Bakio, Santurtzi, Lanestosa eta Txorie-riko lagunek hartu zuten parte txapelketan eta orotara 80 putxera aurkeztu ziren. Lehenengo saria Matxakito Mallabia Sestaoko koadrilari eman zioten; bigarrena, Sopelako Leku Ederri; eta hirugarrena, Turtziozko Putxera-kofradiari. Irabazleak 500 euro, txapela eta urrezko putxera jaso zituen sarritzat; bigarrena gelditu zenak, 300 euro eta zilarrezko putxera; eta hirugarrenak, 200 euro eta brontzezko putxera. Herriko saria mendi taldeak jaso zuen. Horrezaz gainera, garaikurrak eta ardo eta txakolin kutxak banatu ziren laugarren postutik 20 postura bitartean gelditu zirenen artean. Frontoian 400 lagun inguru batu ziren bazkaltzeko eta Taberna Ibiltariak girotu zuen bazkalondoa.

Aste Santuko campusa

Hegalariak Sondikako areto-futbol taldeak campus bat antolatu du Aste Santuko oporrei begira. Campusa sei urtetik 12 urtera bitarteko umeei dago zuzenduta eta apirilaren 2tik 5era egingo da Goronda Beko kiroldegian. Izena emateak 50 euro balio du eta martxoaren 25era arte egin daiteke hegalariaik@kzguenea.net helbidera mezua biladuta. Asegurua, hamaiketako eta diploma daude prezioaren barruan.



Apezetxeak Goya saria irabazi du

Aragoiko Argazkilari profesionalen Elkartek Goya sariak antolatzen ditu bi urterik behin 1985. urtetik hona. Joseba Apezetxea Zamudioko argazkilaria hainbat aldiz proposatu dute sarietarako eta aurten horietako bat eskuratu du. Apezetxeak lehenengo saria jaso du industria-publizitate kategorian. Lehiaketara 448 argazki aurkeztu ziren eta 40 argazkilari hautatu ziren. Azaldu duen moduan, Apezetxea pozik baino pozago dago Goya sariarekin. Eta ez da gutxiagorako,

sari horiek Estatu mailako saririk garrantzitsuenetarikoa baitira. Zamudioztarren argazkiak txukunak, orijinalak eta adierazgarriak dira. Horrela, bada, bere lanak zenbait sari jaso du, Gaztela-Mantxako Argazkilari Profesionalen Elkartek antolatzen duen Quijote saria esate baterako. Sari hori iaz irabazi zuen. Horrezaz gainera, FEPFIk (Argazkigintzan eta irudian diharduten profesionalen Espainiako Federazioa) argazkilari gailen izendatu zuen orain dela urte gutxi.

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
Tel: 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

**URREJOLA
JATETXEA**

Aretxalde, 5
48196 LEZAMA
Tel: 94 455 64 83
Faxa: 94 455 50 94
www.urrejola.es
info@urrejola.es

**Ezkontzak
Enpresa-bazkariak
Menu bereziak**

pro audio
SONIDUEN ADITUAK

Txoriem et... 15
48150 Sondika, bizkaia
944 533 375

www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

- hi-fi
- nabigazioa
- telefonika
- segurtasuna
- lehiaketa
- personalizatzaia

**TXORIERRI
Inmobiliaria**

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

arrangak gerta

ARROKULARTZA - TANAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALERUNTAS
SEGUROR BILAKOEN AGENTZIA

Gure señoak-k bat egin du FEDER erakundearen errebindikazioekin

Otsailaren 28an Gaixotasun arraroen Nazioarteko Eguna da. Euskadin, 170.000 lagun baino gehiagok dute gaixotasun arraro bat; hiru milioik, Estatuan; 27 milioik, Europan; eta 25 milioik, Ipar Amerikan. FEDER Gaixotasun arraroen Espainiako Federazioa da, eta bertan 230 elkarte baino gehiago daude. Federazioak 13 proposamen egin ditu 2013. urterako eta erakunde publikoei helarazi dizkie, horiek Lan-egitasmo bat garatu eta euren konpromisoa, solidaritatea eta erantzukizuna adierazteko. Gure señoak Derioko elkarteak bat egin du errebindikazioekin. Azaldu duten bezala, krisi ekonomikoa oso eragin handia izaten ari da gaixotasun arraro bat duten lagunengan, zeinak laguntza handiagoa behar dutenak baitira, eta osasun arloko murrizketek ere atzerapena ekarri dute pertsona hauen eskubideei dagokienez.

Besteak beste, puntu hauek batu dituzte errebindikazioetan: Estatuko Osasun Sistemak (EOS) gaixotasun arraroak gaixotasun kronikotzat hartzea, eta horiei lehentasuna ematea; familiek koordainketarik egin behar ez izatea; familiek medikamentuak baldintza beretan eskuratu ahal izatea; Osasun sistemaren barruan dauden gutxienez 50 zentrotan gaixotasun arraroak egoki tratatuko direla bermatzea; ikerketa bultzatzea; beste estatu



kide batera joan behar diren pertsonen behar duten arreta bermatzea; eta lan-integrazioa sustatzea.

Bestalde, Gure señoak elkarteak ekin-tza bi antolatu ditu Gaixotasun arraroen Egunaren haritik. Haietako bat Bizkaia Aretoan egin zuten otsailaren 24an eta han Behotsik orkestrak eta Ipar-Alde Derioko abesbatzak hartu zuten parte. Bestea otsailaren 28an izango da, 19:00etan, Derioko Kultur Birikan. Han ere musika saioa eskainiko da.

Truke azoka

Lezamako Trukazaleak taldeak truke azoka antolatu dute martxoaren 10erako. Jubilatuen etxean egingo dute goizeko 11etatik aurrera eta, eguraldi ona badago, plaza ere erabiliko dute. Azokara egoera onean dagoen eta erabiltzen ez den edozer eroan daiteke: liburuak, arropa, jostailuak, diskoak... Gainera, zerbitzuak trukatzeko aukera ere egongo da. Edozein zalantza argitzeko, mezua agin daiteke helbide honetara: lezamakotrukazaleak@gmail.com.

Boxeo-emanaldia, Zamudion

Martxoaren 2an Boxeo Bizkaiko Txapelketaren finalurrekoak izango dira Zamudioko kiroldegian. Emanaldia Aldekoka boxeo taldeak eta Bizkaiko Boxeo Federazioak antolatu dute. Ekitaldia arratsaldeko 7etan hasiko da eta bertan 12 borrokaldi inguru egingo dira. Sarrera doan izango da bazkideentzat, eta gainontzekoei bost euro ordaindu beharko dute. Gonbidatuen artean, Imanol Amaña boxeolari ohia egongo da.



ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Peñasko
arraiendegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

GALAISA
Estetika eta ileapaindegia

94 453 04 85 - 94 471 10 51

Elegabeko ordutegia

Sabino Arana, 1-3, SONDIKA

LIBRERÍA SONDIKA
LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldirakariak, liburuak,
papiertza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Landare-hondakinak batzeko zerbitzua

Sondikako Udalak landare-hondakinak atez ate batzeko zerbitzua jarri du abian. Egitasmoak herritarrek hondakin horiek egoki kudeatzea du helburu. Zerbitzua erabiltzeko 900 720 631 telefono zenbakira deitu behar da astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara. Inausketetatik sortutako egurra txikitu egin beharko da eta plastikozko poltsetan sartu; uztetatik datozen landare-hondakinak hermetikoki itxi ahal diren poltsetan sartuko dira. Poltsak etxetik kanpo utziko dira bilketako zerbitzuarekin adostutako egunean.

Alemaniano zaporea, Lezaman

Martxoaren 1ean eta 2an Bierfest jaialdia egingo da Lezamako Kurtze auzoan. Txosnak ipiniko dira eta Alemaniano ohiko jatekoak zerbitzatuko dira bazkaltzeko eta afaltzeko. Garagardoa ere protagonista izango da eta prezio berezian jarriko da salgai. Horrezaz gainera, musika, kontzertuak eta mus txapelketa ere egongo dira. Kontzertuak Akerbeltz, Kartzarot eta Tito y sus mariachis taldeek eskainiko dituzte eta dj-ak ere egongo dira. Txosnak iluntzeko 8etatik aurrera zabalduko dituzte barikuan; eta eguerdiko 1:30etik aurrera, zapa-tuan.

“Mikel Zarate” Saria

Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak “Mikel Zarate” Haur literatura Saria antolatu dute laugarren aldiz. Hura Mikel Zarate idazle lezamarraren omenez antolatutako saria da eta helburu bikoitza du: batetik, haurrentzako irakurgai berriak sortzea; eta bestetik, idazleen lana bul-



laz Gaizka Arostegik irabazi zuen lehiaketa.

tzatzea. Lehiaketara lehen hezkuntzako ikasleei (sei urtetik 12 urtera bitartekoak) zuzendutako kontakizunak aurkez daitezke. Lanak euskaraz izan behar dira, jatorrizkoak, beste inondik moldatu gabeak, eta aurretik saririk jaso ez dutenak edo argitaratu ez direnak. Lanek gutxienez 10 orrialde eta gehienez 50 edukiko dituzte, DIN-A4 formatuan aurkeztuko dira eta lerro artean tarte bikoitza utziko da.

Parte-hartzaileek idazlanen hiru ale agindu beharko dituzte helbide honetara: Lezamako Udala – Mikel Zarate Saria, Aretxalde 1, 48196 Lezama. Idazlanekin batera gutun-azal txiki bat agindu beharko dute eta haren kanpoaldean idazlanaren izenburua idatziko dute; kanpoaldean datu hauek adieraziko dituzte: egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta nortasun agiriaren fotokopia. Lanak hartzeko azken eguna apirilaren 30a izango da.

Epaimahaia Leire Bilbao, Miren Agur Meabe eta Xabier Mendiguren idazleek osatuko dute, eta erabakia beranduenez maiatzaren 31rako hartu beharko dute. Irabazleak 3.000 euro jasoko du saritzat, eta, horrezaz gainera, Elkar etxeak bere lana argitara emango du. Informazio gehiagorako: liburutegia@lezama.org edo 944556126 (Lezamako Udala); liburuak@elkar.com edo 943310267 (Elkar argitaletxea).



ANKAPALU

LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



ASADOR ARAMENDI

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bakako Txakolina
Bakako Txakolina

Geltokia auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 45

Albaitaritzak **HENAR ORTUONDO**
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

DERIO

LARRIALDIK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatu: 1815



Diaporama emanaldia eta dastatze ikastaroa

Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak diaporama emanaldia eta ardo-dastatze ikastaroa antolatu du martxorako. Irati Andak *Hamarkada bat harkaitzen artean* diaporama aurkeztuko du Emakumearen Nazioarteko Egunaren haritik. Ekitaldia martxoaren 4an, iluntzeko 8etan, izango da Zamudiotarren. Ardo-dastatze ikastaroa martxoaren 5ean, 7an eta 8an egingo

da, 19:00etatik 21:00etara, Larragoiti jau-regian. Bazkideek eta berbalagunek 25 euro ordaindu beharko dituzte; eta gai-nontzekoek, 25 euro. Izena emateko, dei daiteke 94 452 34 47 telefono zenbakira, edo lagatzu@lagatzu.org helbidera mezu bat bidali. Ikastaroa Roberto Sarriugarte, Iñaki Uribe, Iñaki Lopetegi eta Olaia Eloorriaga sumillerrek emango dute.

Adinekoentzako behatoki bat sortu dute Derion

Derioko Udalak behatoki bat jarri du martxan, adinekoen premia sozialak antzemateko. Zerbitzua 75 urtetik gorako herritarrei dago zuzenduta, bakarrik edo 75 urtetik gorako lagunekin bizi direnak eta aldez aurretik Udalaren informazio-orria jaso dutenak. Egitasmoak egoera ahulean dauden pertsonak aldian-aldian bisitatzea du helburu, eta zailtasun handienak dituztenen bizi-baldintzak hobetzen saiatu. Besteak beste, alderdi hauek aztertuko dira: nagusiek dituzten harreman sozialak eta haien aldizkatasuna, jasotzen duten laguntza, eta bizi diren etxebizitzaren egokitasun-maila. Bestalde, aipatu beharra dago azaroan su-detektagailu bat ipini zela Derioko 87 etxebizitzatan. Etxebizitza horietako bakoitzean 75 urtetik gorako lagun bat bakarrik bizi da.



R P A
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

GOIZALDE
Peluleria
Estetika
94 455 81 44
Angulen 2, beheia Larrabetzu-Bizkaia

SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - beheia 48195 Larrabetzu 94 455 89 19



a: Asier Olazar

Hogeta bost urte bete dira Lezamako gaur egungo eskolea eregi zala eta, urteurrena ospatzeko, Lezama Ereiten herri ekimena sortu dabe irakasleek, gaur egungo ikasleen gurasoek eta ikasle ohien gurasoek, ikasle ohiek eta udal ordezkariak. Alkartea eta eskolearen urteurrena otsailean aurkeztu zituen jente-aurrean, eta horretarako, Lezamako eskola zaharra aukeratu eben eszenatoki. Bertan Kultur Etxea, Zaharren Egoitza eta liburutegia dagoz gaur egun. Aurkezle Igor Urrutikoetxea eta Pello Madariaga ibili ziren. Aretoan jentetza handia batu zan eta batzuk kanpoan gelditu behar izan ziran. Ekitaldian bildutakoan artean, irakasle, ikasle eta gurasoen alkarteko kide ohiak izan ziran.

Eskolearen eraikin barria 1988. urtean egin zan eta aurkezpenean data horren inguruan, bai mundu mailan, bai Lezaman bertan, izan ziran gertaerarik inportanteenetarikoak ekarri zituen gogora. Aitamen berezia be egin eutseen eskolaren alde beharra egin daben hainbat laguni, eta bereziki maisu Kepari, ekitaldian bideo baten bidez parte hartu ebana. Era berean, Lezaman hezkuntza publikoa eta euskalduna egon zedin, irakasleek eta herritarrek egindako ahalegina azpimarratu eben, eta gaur egungo eskolea baino lehen herrian egon ziran beste auzo eskolen garrantzia gogoratu eben. Ekitaldiaren ostean, kopaua eskini zan eta alkartzeko eta solasaldietarako momentua izan zan.

Lezama Ereiten alkartea jente-aurrean aurkeztu da

Hitzorduak

- Martiazen 15ean, Musika Eguna, eleizan.
- Apirilaren 19an, Kirol Eguna, eskolako kiroldegian.
- Maiatzean, dokumentala.
- Ekainaren 15ean, Jai nagusia, eskolan.

Urteurrenaren haritik, kamisetak jarri ditu salgai Lezama Ereiten alkarreak eta badabilz gaurko eskolearen zein eskola zaharren argazkiak biltzen. Alkarreak gaz harremanetan jarteko lezamaereiten@gmail.com helbide elektronikoa erabili daiteke, edo facebook-en daben profila: facebook.com/lezama.ereiten.

Jaialdia

Bestalde, aitatu beharra dago ekainaren 15ean jaialdi handia egingo dala eskolearen urteurrena ospatzeko. Baina ez da ekintza bakarra izango, hemendik ekainera arte beste ekitaldi batzuk be egingo diralako. Halan, Musika Eguna antolatu da martxoaren 15erako. Herriko musikariak, eskolako trikitilariak, Larra-betzuko Musika eskolan ikasten dabilzan



lezamarrek, Ekidazu abesbatzakoek eta Gurutze dantza taldekoek emonaldia eskini dabe eleizan. Ostean kopaua izango da eta Astrapala proiektuaren partaideak batera tabernaz taberna joango dira dantzan eta kantuan.

Apirilaren 19an, eskolako kiroldegian, futbito eta pelota partidak jokatuko dira ikasle eta ikasle ohien artean, eta maiatzean Lezamako hezkuntzaren historia jasotzen dauen dokumental bat ikusteko aukerea egongo da. Besteak beste, argazkiak eta hainbat protagonisten testigantzak batu ditue bertan. Datozan egunotan zehetasun gehiago jakinarazoko dira esandako ekintzen inguruan. Horrezaz gainera, aitatu beharra dago eskolako umeek antzezlan bat eskini ebela otsailean.



Geldoetatik

Deriora ailegatu berriak ginela, egun euritsu eta zakar batean emaztea eta biok leku honetaraino igo ginen. Geldo auzoko eskola zaharrera heldu ginenean, paisaiari begiratu genion eta ikuspegiak betiko liluratu gintuen. Gaur egun, urte asko pasatu direla eta eskola zaharra berritu dutela, ikuspegi horrek gogora dakarzkigu Txorierrin eman ditugun urteak.

Testua eta argazkia:
Iñaki Aránguiz



Bai Euskarari
urrats biziak



ziurtagiriaren **elkarte**



bai.euskarari.org

"Oso inportantea da bakarrik egot

t: Gaizka Eguzkitza / a: Jon Goikouria

JON ARRETXE | idazlea

Barriro etorri zara Larrabetzura zure liburuetakoa baten barri emotera...

Bai, halan eskatu deuste eta ni pozozik etorri naz. Larrabetzun lagunak eta irakurleak dodaz, eta polita da hona etortea, zeri buruz eta nire azken liburuari buruz berba egitera. Beste liburuak be berton aurkeztu nituan, eta barriro deitu deuste *19 kamera* aurkezteko. Seinale ona da hori!


Zer da *19 kamera*?

Nire azken liburua. Aurrekoak moduan, eleberri baltza da, baina estiloari jagokonez, apur bat ezbardina da: lehenengo aldiz Euskal Herrian kokatu dot istorioa, Bilbon. Egoera tragikoak azaltzen dodaz, baina aurreko liburuak ikusita, hau ez da horren tragikoa. Eta umorea sartu dot. Ganera, pertsonaia sortu dot, Touré, bera-gaz satea egiteko asmoa dodalako.

Zergaitik kokatu dozu liburua Bilbon?

Jenteak eskatzen eustelako. Eta Euskal Herriko eremuan Bilbo da lekuri aproposena eleberri baltza kokatzeko, eta, batez be, San Frantzisko auzoa. Alde batetik, ondo ezagutzen dodalako, eta bestetik eleberri baltzak eskatzen dituan osagaiak ditualako: ahaztuek edo baztertuek osa-

Jon Arretxe (Basauri, 1963) alde askotako gizona da: musika, hezkuntza fisikoa eta euskera ikasi zituan, baina, batez be, bidaiaria eta idazlea izateagaitik ezagutzen dogu. Basaurikoa Larrabetzun izan da bere azken eleberria aurkeztan, *19 kamera*.



tzen dabe auzoa, droga, etorkinak, prostituzinoa, pobrezia... San Frantzisko ghetto handia da.

Liburuetan zure helbide elektronikoa idazten dozu...

Noizean behin baten batek astakeriak idazten ditu, baina horreek anekdotak dira. Oro har oso lagungarria iruditzen jat. Helbide elektronikoa jarten dot jentearen benetako eretxia jaso gura dodalako. Normalean gustetan jakena eta gustetan ez jakena adierazoten dabe, baina niri bigarrrena interesetan jat, batez be saga bat idatzi gura dodalako. Eretxiak kontuan hartzen dodaz, batik bat errepliketan diranean. Nik mezuak eskertzen dodaz eta beti erantzuten deutset. Holan, hartu-emon polita sortzen dogu.

Literaturea alde batera itxita, bidaiek egin zaitue ezagun. Nondik jator-tzu zaletasuna? Zelan hasi zinan?

Kasualidadez: 18 urte nituala, Euskal filologia ikasten hasi nintzan, eta, bitartean, euskerazko eskolak emoten nituan diru apur bat irabazteko. Ez neban jakin dirua zelan gastau eta gehiegi pentsau barik, bidaia egitea erabagi neban. Oporretan beti joaten nintzan kanpora, eta gero horren inguruan hasi nintzan idazten. Nire bizitzan literaturea eta bidaia lotuta egon dira.

Normalean bakarrik joaten zara. Zergatik? Ez zara aspertzen?

Ez. Nire ustez, oso inportantea da bakarrik egoten ikastea, eta askoz inportanteagoa bidaiaria izateetik idazlea izatera pasau nintzanetik hona. Besteategaz joanez gero, hobeto pasauko dozu eta seguruago ibiliko zara, beharbada, baina bakarrik joaten zaranean zuk egiten dozun hausnarketa eta jentegaz dozun hartu-emona sakonagoak dira. Eta hortik



en ikastea”

*“Nire bizitzan
literaturea eta
bidaia lotuta
egon dira”*

*“Euskalkiak
apurka-apurka
desagertuko dira
gura ala ez”*

ateraten dituzun esperientziak oso baliagarriak dira idazteko, eta, oro har, bizitzeko be bai.

Bakarrik bidaiaitu eta bakarrik idatzi. Bakartitzat jotzen dozu zeure burua?

Ez, inondik inora. Bizitzan danerik egiteko dago denporea. Jenteak pentsau daike txakur berdea nazala, baina ez da egia. Lagun asko dodaz esparru guztietan (musikan, kirolean, literaturan...) eta itzel gustetan jat eurakaz egotea. Dana dala, azken bolada honetan gero eta bidaia gitxiago egiten dodaz, edo behintzat laburragoak dira, eta normalean idazteko atxakiagaz. Bidaiaitzen edo idazten nagoanean bakarrik egiten dot, baina, bestela, oso jentezalea naz eta kalean egotea asko gustetan jat.

Hainbat tokitan egon eta gero, orain Nafarroan, Arbizon, bizi zara. Zer dala-eta?

Ez dakit. Gustura nabil Euskal Herri osoan. Nafarroan kasualidadez amaitu neban. Gasteizen bizi nintzan neskalagunagaz, eta pentsau genduan etxe merkea eta polita erostea, baina Gasteizen oso gatxa zan. Gero eta urrungo hasi ginan topatzen, eta azkenean Arbizon amaitu genduan.

Han biziko ez bazina, non biziko zinateke?

Idearik ez. Bizkaitarra naz, Basaurikoa, eta gustura nabil Euskal Herrian, batez be eremu euskaldunetan. Ni leku guztietan ibili naz primeran: Afrika, India, Amazo-

nian, Frantzian, Espainian... Baina bizi izateko, Euskal Herriko edozein leku izan daiteke aproposa.


Zein izango da hurrengo bidaia?

Ez dakit. Aurreko liburua Tangerren eta Bamakon kokatu neban, eta, atxakiaz baliatuz, hara joan nintzan behin baino gehiagotan. Baina azkena Bilbon dago kokatuta. San Frantziskora joatea be bada bidaia ederra. Hurrengo hara izango da, gure San Frantziskora, ez Estadu Batuetan dagoanera.

Basauriko euskereari buruzko ikerketea egin zenduan. Uste dozu euske-

ra batuak tokian tokiko euskalkiak desagerrarazoten dituala?

Euskalkiak apurka-apurka desagertuko dira gura ala ez. Baina hori baino kezagarriagoa da euskera naturala galtzea. Txorierriko edo Arratiko betiko euskerea ez da euskera batua; bakotzak baditu esamolde edo ezaugarri fonetiko bereziak. Euskera aberasteko, batuak hartu behar ditu tokian tokiko ezaugarri berezi horreek, lekua badabe eta. Ezin da bakotzak dauan kutsu natural eta propio hori galdu. Halan, gure euskerea ez da artifiziala izango.



"Saririk inportanteena ikusleen txaloak dira"

IDURRE DUARTE | artista izateko bidean



Odolean daroa artea, "berau abizenetan be dauka dalako beharbada: Duarte Uriarte", esan dau txantxetan. Idurre Sondikakoa da eta 13 urte ditu. DBHko bigarren mailan dago eta aitak oso ikasle ona dala aitatu deusku. Gazteak denpora nahikoa eukiten dau ikasketak hainbat zaletasunegaz buztartzeko: dantzea, antzerkia, argazkigintza, apaingarriak egitea... Orain dala gitxi erakutsi deusku zein erreztasun handia daukan kazetari-tzarako eta interpretazino-rako.

t: Itxaso Marina

Aikor! aldizkarian zure artikulu bat irakurtzeko aukerea euki dogu.

Kazetaritza tailerra antolatu zan Iza-rren distira! lehiaketaren barruan eta, halako gauzak egitea, antzeztea, berba egitea... asko gustetan jatanez, animau egin nintzan han parte hartzera. Gainera, ahiztak be gura eban nik parte hartzea... eta irabaztea, noski. Gauza asko ikasi neban: barri motak, kronikak egiten, irudiak zelari ipini behar diran...

Eta zure beharretako batek saria jaso eban.

Asko postu nintzan; eta ahiztea, are gehiago. Baina irabazteari baino gehiago eskarmentuari emoten deusatz nik garrantzia, zerbait barria ikasteari. Gogoa horrek pizten deustalako.

Talentu lehiaketa bera be irabazi zenduan zeure taldekideak batera.

Aurreko lehiaketan be hartu neban parte dantza bategaz, eta bigarren lotu nintzan. Oraingo honetan be dantza bat aurkeztu gura neban lagun bigaz batera, baina antzerki talde baten nago eta taldekideok geure artean egin genduan berba, eta lehiaketan zerbait egitera animau ginaran. Ikuskizun bi aurkeztu genduzan castingetara eta epaileek hareetako bat aukeratu eben, galara eroateko. Eta irabazi genduan.

Antzezlan bat zan, zer kontau zenden bertan?

Idea nik euki neban. Amama batek lobei kontau deutse zelakoa zan bere bizimodua gerra garaian eta zelako zaltasunak zituan euskeraz egiteko. Eta guk ez deusagu horri garrantzirik emoten eta gazteleraz egiten dogu berba... Amamagaz egin neban berba informazioa hartzeko. Eszenatokian mobimentuakaz jolastu ginaran, sentimentuakaz, begiradakaz... Umorea be erabili genduan ikusleen arreteta hartzeko eta dana hain triste ez izateko.

"Irabazteari baino gehiago eskarmentuari emoten deusatz garrantzia"



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com



Ez zinan bape urduri egon, ezta?

Ez, antzerki taldean bost urte nebazanetik nabil eta jente-aurrean gauzak egiteko ohitua daukat. Egia esateko, hasi nintzanean, baneukan lotsa apur bat... baina kendu egin jatan eta orain bardin deust nor dagoan niri begira. Gainera, gustetan jat eszenatoki gainean egotea, jenteari zeure talentua erakusten deusazulako. Saria jasotea ez da inportantea. Nire ustez, saririk onena hau da: ikusleei egiten dozuna gustetara eta hareen txaloak entzutea. Ni pozik nago, jenteari gustau jakolako egin genduan antzezlan. Gainera, mezua jentearengana ailegau zan, esaten ebelako egia zala, askotan gaztelera jotzen dogula.

Zelan ikusi zenduzan gainerako parte-hartzaileak?

Oso urduri egozan. Azken lehiaketan aurrekoan baino gazte gehiagok hartu dabe parte eta hori ondo dago, gauza ezbardinak egin ziranez, antzezlanak, dan-

tzea, musikea... entretenigarriagoa izan zalako eta, gainera, beste parte-hartzaileengandik ideak hartzeko aukerea euki gendualako. Izan be, zeure beharra ez ezik besteena be balorau behar dozu, hareengandik ikasi eta oso behar ona egin dabela onartu. Halako egitasmoak oso ondo dagoz, gazteok geure talentua erakutsi ahal daigun.

Berba egin zure antzerki taldearen inguruan.

Lehen esan bezala, bost urte nebazala hasi nintzan taldean, eskolaz kanpoko jarduerara zan. Eskolatik urten genduan, pena handia emon euskun taldea itxi beharrak, eta han jarraitzea erabagi genduan. Zortzi lagun gara eta eguenetan bilitzen gara Sondikako gaztetxean. Irakaslea dogu eta oso serio gabilz eskoletan. Asko gustetan jaku, inprobisazioak egiten doguz, barreka ibiltzen gara, dibertigarria da... eta uste dot talentua daukagula. Gai-

nera, guztiok daukagu grazia handia, eta ideia asko daukaguz. Antzezlanak-eta urtean behin edo bitan antzeztzen doguz jente aurrean. Batzuetan gatxa da pertsonaia batzuk egitea, baina gatxa dan pertsonaia egiteak badauka bere xarmea, besteek ondo egiten dozula esatea be gustetan jatzulako.

Gustauko litxakizu etorkizunean antzerki munduan aritzea?

Niri asko gustetan jat antzerkia, eta, gainera, aste osoan izan dodazan presinoak eta estresa kentzeko modua da. Baina, etorkizunari begira, gatx egiten jat ogibide bat edo beste bat aukeratu behar izatea, gauza asko gustetan jatazalako: margo-tzea, artea, dantzan egitea, kazetaritza-mundua, ikuskizunak, umeei laguntzea, jenteagaz hartu-emonetan egotea, berba egitea... berba asko egiten dodala esaten deuste etxean. Ez dakit, oraindino ez dot argi.

*"Hasi nintzanean,
baneukan lotsa apur
bat, baina orain bardin
deust nor dagoan
niri begira"*

*"Besteen beharra be
balorau behar dozu,
hareengandik ikasi eta
oso ondo egin
dabela onartu"*

*"Antzerkia aste
osoa izan
dodazan presinoak
eta estresa kentzeko
modua da"*

2013rako aurrekontua: zerbitzu guztiei eusten diegu



Urtarrilaren 21ean, osoko bilkura egin zen, eta Mankomunitateak 2013. urterako edukiko duen aurrekontua onartu zen. Aurrekontuko partida handiagoa jaso duen atal bakarra ondasun arruntei eta gastuei zuzendutakoa da, hau da, bigarren atala. Gainontzekoek iaz baino diru-partida txikiagoa jaso dute.

Bigarren atala aurrekontuaren gutzitza % 89,16koa da eta hain inportantea da, ezen beharrezkoa baita azaltzea zein ondasunei eta zerbitzuei buruz hitz egiten ari garen. Hurrengo lerrootan atal horren barruan dauden zerbitzuak eta haiei dagozkien diru-partidak azalduko ditugu.

Gasturik handiena bide garbiketa eta hiriko hondakin solidoak kudeatzeko zerbitzuak sortzen du. Horren haritik, aurreikusi da gure kaleak garbitzea eta hondakinak batu eta tratatzea –bai hondar-frakzioak, bai gaika batzen direnak,

hala nola papera, kartoia, tresnak, etxean erabilitako olioak, eta berrerabilgarriak diren tresnak (ehun-gaiak, liburuak, jostailuak, gailu elektriko txikiak...)– txorierritarroi 3,5 milioi euro kostatuko zaigula, aurrekontuaren % 51,76. Gainera, aipatutako hondakinei organiko biodegradagarriak gehitu behar dizkiegu, zeinak laster gaika batzen hasiko baikara. Zerbitzu berri honek ez du bilketa eta tratamendu-kostuen igoerarik ekarriko, izan ere, hondar-frakzioak batzeko edukiontzi batzuk kenduko dira eta biltze-maiztasuna ere gutxiagotuko da. Hala, zerbitzu berriak dakarren kostuaren gehikuntza neurri bi horiei esker ordainduko da.

Argiteria publikoko zerbitzu integrala arreta merezi duen beste zerbitzu bat da, 850.000 euro baino apur bat gehiago jasotzen duena. Zerbitzu horrek aldaketa sakona izango du. Orain arte, soilik argiteria publikoaren mantentze-lanak sartu dira haren barruan, baina laster indarre-

an egongo den kontratu berri bat sinatu da, eta bertan beste zerbitzu batzuk ere hartu dira kontuan: kontratatutako enpresak beharrezkoa den elektrizitateaz hornituko gaitu, lanak egingo ditu energia kontsumitzen duten instalazioak hobetu eta berritzeko, eta energia-aurrezki eta energia berriztagarrien arloko inbertsioak egingo ditu.

Udalek finantzatua

Handitu den beste diru-partida bat Gazteria sailari dagokiona da: 74.091,84 euro. Gazteentzako informazio zerbitzuaz gainera, azaroan 10 urte beteko dituen, aurtengo ekitaldian 30.000 euro bideratuko dira gazteen ekintzetarako. Bestalde, Esku-hartze komunitario sailak 91.669,98 euroko diru-partida edukiko du. Zerbitzu honek txorierritarron osasuna bultzatzea eta gure bizi-kalitatea eta gizarte ongizatea hobetzea ditu helburu. Euskara sailak 177.280,56 euroko aurre-



*Diru-partida
handiagoa jaso duen
atal bakarra ondasun
arruntei eta gastuei
zuzendutakoa da*

*Gasturik handiena
bide garbiketa eta
hiriko hondakin
solidoak kudeatzeko
zerbitzuak sortzen du*

*Bigarren atalaren
gastuen % 88
Txorierriko
Udalek
finantzatzeko dute*

kontua du, eta batez ere euskararen erabilera sustatzen dituen programak jarriko ditu martxan.

Azkenik, orotara 928.488,08 euro bideratu dira hurrengo zerbitzuetara: etxez etxeko laguntza, gizarte-hezkuntzazko proiektua, eta adingabekoei zuzendutako ebaluazio, diagnostiko eta esku-hartze psikologikorako zerbitzua. Atalaren barruan dauden beste zerbitzu batzuk hauek dira: Txorierriin dauden 22 desfibriladoreak mantentzea, abandonatu diren etxeko animaliak jasotzea eta artxibategiak mantentzea.

Bigarren atalaren gastuen zatirik handiena, % 88, Mankomunitatea osatzen duten Udalek finantzatzeko dute. Gainontzekoa, Bizkaiko Foru Aldundia-
ren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen bidez eta beste diru-sartze batzuen bidez, hala nola etxez etxeko laguntzako zerbitzua erabiltzen dutenen diru-ekarpena, ordaintzen da.

Guztion artean berdintasuna eraikitzen!

Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna da. Hura ospakizunerako eguna da, baina errebindikaziorako eguna ere bai. Hala, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten sei Udaletik hainbat ekintza sustatu dira, zeinak herritar guztiei zuzenduta baitaude, emakumezkoiei, gizonezkoiei, umeei, gazteei, helduei...

Martxoaren 8an, herri poteoa egingo da Loiun eta *Las mujeres serias no gustan* lana antzeztuko da Sondikan. Derion, ekintza sorta zabala izango da aste osoan zehar, hala nola zineforum bat, *wordcafe* bat, hitzaldi bat eta kale-agerraldi bat. Zamudioko Gazte estazioan ekintzak landuko dira gazteekin eta liburutegian eta ludotekan ere egingo dira zenbait ekitaldi. Era berean, *Evita* antzezlana eskainiko da martxoaren 8an, adin tarte guztietako lagunei zuzenduta dagoena. Ausartak Lezamako antzerki taldearen emakumeek *Me quiere, no me quiere* ikuskizuna antzeztuko dute, eta, haren ostean, kopaua eskainiko da.



Larrabetzun, ipuin kontalaria antolatu da gaztetxoentzat eta martxoaren 10ean *Ai ama* antzezlana eskainiko da. Martxoaren 8tik 15era bitartean, "Munduko emakumeak" erakusketa ikusgai jarriko da Anguleri kultur etxean.

Ekitaldi guztiak udalerrietako agendetan eta webgunetan iragarriko dira, baita Mankomunitatearen webgunean ere.

Bosgarren edukiontzia kit-a



Martxoan, kit-ak banatuko ditugu bosgarren edukiontzia erabiltzeko izena eman dutenen artean. Kit-ak doakoak dira eta hauek osatzen dituzte: kubo bat, poltsa biodegradagarriak eta edukiontzia zabaltzeko giltza. Kit-ak hurrengo egunetan eta lekuetan banatuko ditugu:

Martxoak 8 (barikua), 17:00etatik 20:00etara; eta 9 (zapatua), 10:00etatik 13:00etara

Zamudio: Aresti gelan (Postetxearen lehengo bulegoa).

Larrabetzu: Anguleri kultur etxean.

Martxoak 15 (barikua), 17:00etatik 20:00etara; eta 16 (zapatua), 10:00etatik 13:00etara

Sondika: liburutegian.

Lezama: Udaletxeko behealdean.

Martxoak 22 (barikua), 17:00etatik 20:00etara; eta 23 (zapatua), 10:00etatik 13:00etara

Loiu: eskoletan, herriko plazan.

Derio: Kultur Birikan.

Informazio gehiago:

Tel: 672 36 70 27

www.ontzimarroia.com

Punteria bikaineko bikotea

ROBERTO CABALLERO ETA MÓNICA LÓPEZ | tiratzaileak

Eskopetak-eta ehiztarien kontua izan dira beti Euskal Herrian. Azken bolada honetan, hala ere, beste erabilera bat eman diote zale batzuek jarduera horri, eta *field target*-en aritzen dira. Zamudion, Roberto eta Mónica senar-emazteak ditugu. Tiratzaileak dira, tiratzaile bikainak: mutila munduko txapelduna da eta neska, Espainiakoa. Hara zer punteria!



t: Gaizka Eguzkitza

Oso gaztetxoa zela, Roberto Caballerok karabinarekin egiten zuen tiro, eta, denboraren poderioz, umeen jolasa helduen zaletasun bihurtu zen. "Txikitan, karabinarekin jolasten ginen; geroago, utzi egin nuen, baina duela sei urte jakin nuen bazegoela aire konprimituzko armei lotutako kirol bat, eta txapelketak antolatzen zirela, eta zaletasuna berreskuratu nuen orduan. Eskopeta erosi eta hasi nintzen informazioa bilatzen, tiro egiten, entrenatzen eta bidaiak egiten". Mónica López, aldiz, bere senarraren bitartez sartu zen *field target* munduan. "Askotan, Roberto-ekin joaten nintzen txapelketetara, eta neure buruari galdetzen nion ea ni ere izango nintzen tiro egiteko eta helburuan jotzeko gauza. Txapelketa horietako batean, eskopeta bat zozketatu zuten eta toku egin zitzaidan".

Harrezkero, biek hartzen dute parte txapelketetan, eta askotan oso emaitza onak eskuratzen dituzte. Horrela jarraituz gero, laster ez dute etxean hainbeste garaikur jartzeko apalategirik izango. Mónica, esate baterako, Espainiako txapelduna izan zen 2010ean, eta txapeldunordea, 2011n. "Lehenengo txapela polita izan zen. Nire lehenengo txapelketetako bat izan zen, eta hara joatea eta irabaztea oso pozgarria izan zen. Indarra eman zidan aurrera jarraitzeko".

"Kirola berri-berria da eta oraindik ez dago oso hedatuta. Gainera, oso neska gutxi aritzen dira", esan digu Mónica-
lor-

Bikotea

Roberto (Rupher du ezizena): bilbotarra da eta 38 urte ditu. Gimnasio batean egiten du lan monitore, Abadiñon.

Palmaresa: (2010) Euskadiko Ligaren txapelduna eta Espainiako txapeldunordea; (2011) Espainiako txapelduna eta Iberiar Garaikurraren irabazlea; bigarrena, Euskadiko txapelketan eta Zumarragako Nazioarteko openean; eta laugarrena, Munduko Txapelketan; (2012) Munduko eta Espainiako txapelduna; bigarrena, Euskadiko Ligan eta Iberiar Garaikurrean.

Mónica: zamudioztarra da eta 36 urte ditu. Erizaina da Gurutzetako Ospitalean.

Palmaresa: (2010) Espainiako txapelduna; (2011) Espainiako txapeldunordea.

penari garrantzia kendu nahian. "Balio handiagoa izango luke gizonezkoen kontratutako bagina eta haiei irabaziko bagenie...". Oraindik ez du gizonezkoiei irabazterik lortu, baina gertu dago, hirugarrena lotu zelako Euskadiko sailkapen orokorrean. "Gogor entrenatzen badut eta arma ona badut, posiblea da irabaztea", dio Mónica-
lor-

Era berean, Robertok ere oso palmares ederra du; Mónica-
lor-

*Biek irabazi dute
Espainiako txapelketa,
eta Robertok, gainera,
Mundukoa ere lortu du*

goa, egia esateko. Espainiako zein Euskadiko txapelak jantzi ditu, eta garaipenak lortu ditu hainbat lehiaketatan. Baina bere arrakastarik handiena iaz lortu zuen Norwegian, Munduko Txapelketa irabazi zuenean. "Ni nahiko lasaia naiz, nahiko hotza, eta nekez adierazten ditut neure sentimenduak. Baina oso hunkigarria izan zen garaipena. Norwegian hiru egun eman genituen tiroka: lehenengo egunean nahiko txarto ibili nintzen; bigarrenetan, hobeto; eta hirugarrenean, primeran. Egunek aurrera egiten zuten eta nik ez nekien zeintzuk diren lehiakideen emaitzak, eta tentsio handia izan nuen azken jardunaldian. Txapelketa nire ibilbidearen gailurra izan da, eta hura sei urteren buruan baino ez dut lortu". Robertok Eskandinavian bizi izandako esperientzien berri www.euskalft.org webgunean eman zuen.

Garaipena oso gozoa izan zen; txapelketaren antolaketa, ordea, ez zen batere aproposa izan. Hala ere, Robertok lehiakideen arteko giroari ematen dio garrantzia. "Munduko Txapelketan ez ezik, *field target*-eko gainerako lehiaketetan ere la-

.....*Harrigarria*.....

PLAN RENOBED

280€

Martxoaren
15era arte

280€-ra arteko beherapena,
ohea, koltxoi eta oinarria erostean
SUITE DELUX dendetan bakarrik (Ikusi behean)

 SUITE DELUX
ATSEDENERAKO MARKA ESCLUSIBOAK
www.SUITDELUX.com

1 Leioa Koltxoi-Denda, 944 316 516
La Avanzada 80 (Bilboko norabidean)

2 Arteaga Koltxoi-Denda, 944 545 147
Derioko Apaiztegia

3 Lotara Koltxoi-Denda, 943 202 784
Errebal 19, Eibar



guntzen diogu tiratzaileok elkarri. Batez ere kirolean hasiberria zarenean, lehiaki-deok gomendioak-eta ematen dizkiogu elkarri. Ez dago inbidiarik, eta oso harreman ona dugu”.

Oreka, harremanean

Mónica eta Robertoren artean ere ez dago inongo inbidiarik, ezta lehia handirik ere, beharbada kategoria ezberdinetan aritzen direlako: Roberto, springer kategorian; Monica, pcp kategorian. Mutila zerebralagoa da eta neska, oldartsuagoa; senarrak alde teknikoak menperatzen ditu eta arma prestatzen dio emazteari. “Nik zaletasuntzat hartzen dut *field target*-a, eta Robertok, ordea, serioago. Gizonak gomendioak ematen dizkit, nik baino eskarmentu handiagoa duelako. Niri tiro egitea gustatzen zait eta kirolaren alde teknikoek (eskopeta zelan ajustatu eta abar) aspertu egiten naute eta horre-

Mónica: “Niri tiro egitea gustatzen zait, baina kirolaren alde teknikoek aspertu egiten naute”



Zer da *field target*-a?



Field target-a Ingalaterran sortu zen 1980ko hamarkadan. “Ehiza egiteko ohitura handia dago bertan, eta gaur egun aire konprimituzko karabinarekin ehiza egitea legezkoa da, esate baterako”, azaldu digu Robertok. Tiratzaileak ibilbide bat egin eta itu finkoetan jo behar du. Ituak 20 zentimetrokoak dira eta animalia-itxura dute. Erdian 1,5-4 cm-ko zulo txoa dute, eta bertan asmatu behar da. Ibilbide bakoitzean 40-50 itu daude eta tiratzaileengandik 20-50 metrora jartzen dira, edozein lekutan: lurrean, arboletan, kobazulo ilunetan... Tiratzaileek denbora mugatu batean bukatu behar dute ibilbidea.

Field target-ean kategoria bi daude: springer eta pcp. Lehenengoa betiko karabina da, osagarri mekanikoez egina, malgukiaren bidez jaurtitzen duena; bi-

Bioi gustatzen zaie lehia, eta kirola egunerokotasunak ekartzen dienaren osagarri aproposa da

gatik laguntzen dit berak. Baina horren guztiaren truke, nik eskopetak garbitzen ditut (kar, kar)".

Bioi gustatzen zaie lehiatzea, eta egunerokotasunak ekartzen dienaren osagarri aproposa da *field target*-a, baina modu ezberdin batean. Robertok monitore egiten du lan gimnasio batean, eta lanak ez du urduritzen. Beraz, "gozatu egiten dut lehiak sortzen duen emozioaz". Mónica erizaina da eta haren lana, aldiz, ez da batere lasaia. "Egunero ikusten ditudan miseriak ahazten laguntzen dit kirolak". Gainera, yoga egiten du eta horrek kontzentrazioari eusten laguntzen dio txapelketetan.

Field target-a ez da kirol erraza. Aire konprimatuzko armek tiro eliptikoak egiten dituzte eta horregatik hartu behar dira kontuan hainbat irizpide tiroa behar bezala egiteko: esate baterako, eguraldia. "Euria edo haize handia egiten badu, oso zaila da bete-betean asmatzea. Teleobjek-

garrena modernoagoa da eta, malgukiaren ordean, airez betetako botila txiki batek laguntzen du tiro egiten. "Bigarrena da onena, gutxiago mugiarazten zaituelako eta tiroak zehatzagoak direlako. Goi-mailako tiratzaileek haiek erabiltzen dituzte. Springer eskopetak kontrolatzea zailagoa da, baina tradizioa maite dugunok haiek nahiago ditugu. Lagun baten arabera, batzuk Ferrari dira, eta besteak, Seat 600".

"Tiratzaile onenak Ingalaterrakoa dira, tiratzaile gehienak hantxe daudelako. Duela bi edo hiru urte, Guadalarajako (Espainia) José Redondok Munduko txapelketa irabazi zien lehendabiziko aldiz ingelesei. Australian, Hegoafrika, Italian eta Estatu Batuetan ere badaude tiratzaile onak. Euskadin 40-50 bat tiratzaile gara".

sarrerren salmenta
www.bbkk.es
bbk

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago

BFA DFB
Bilbao Futbol Federazioa
Deporte Fútbol de Bilbao



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

GORDA
TXALO PRODUKZIOAK
Martxoak 16, 20:00etan
Prezioa: 10 €



LAS CHICAS SERIAS NO GUSTAN
TORPEDOLEVEL TALDEA
Martxoak 8, 20:00etan
Prezioa: 3 €



DON GATO Y SU PANDILLA
90' AG (2D)
Martxoak 2, 18:00
Martxoak 3, 17:00



LINCOLN
151' EG-7 (2D)
Martxoak 2, 20:30
Martxoak 3, 19:30



KERITY IPUINEN ETXEA
80' AG EUSKARAZ (2D)
Martxoak 9, 18:00
Martxoak 10, 17:00



EL LADO BUENO DE LAS COSAS
122' EG-12 (2D)
Martxoak 9, 20:30
Martxoak 10, 19:30

LA VIDA DE PI
128' EG-7 (3D)
Martxoak 17, 17:00-19:30

JACK EL CAZA GIGANTES
(3D)
Martxoak 23, 18:00
Martxoak 24, 17:00

LOS AMANTES PASAJEROS
90' EG-16 (2D)
Martxoak 23, 20:30
Martxoak 24, 19:30

ZINEA



2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatuak izan daitezke



*Mónicak 450 euro
ordaindu zizkion
artisaui bati eskuz eta
neurrira egindako
eskopeta egiteagatik*

tiboak kalkulatzeko laguntzen dizu zein tarte dagoen zu eta iturearen artean, baina gutxi gorabeherako kalkulua baino ez da". Gainera, ituak txikiak dira eta nahiko urrun jartzen dira. Bestalde, tiratzaileak osasuntsu ibili behar dira. "Txapelketek lau ordu irauten dute, eta batzuetan ibilbideak nahiko gogorrak dira: aldapan gora eta behera, haizea, euria... Hori dela-eta, fisikoki nekatzen zarenean, burua ere nekatzen da, eta horrek gelditzeko gogoa ematen dizu, ahalik eta lasterren bukatu nahi duzu. Nekatzen zarenean, kontzentrazioa galtzen duzu".

Zaila izateaz gain, *field target*-a kirol garestia da. "Betiko karabinak 150 euro balio du; eta mira teleskopikoak, beste 150 euro. Hori guztia, hasteko, eta handik aurrera, nahi beste. Elkartean gomendio bera ematen diegu guregana datozen guztiei: hasteko, merkea erosi eta, gustatzen bazaizu, diru gehiago gastatu. Kalitateak asko balio du: Mónica 450 euro

ordaindu zizkion Ingalaterrako artisaui bati eskuz eta neurrira egindako eskopeta egiteagatik. Esku-aztarna bidali genion berak eskopeta egin ahal izateko. Armarren kolorea eta beste ezaugarriak ere aukeratu genituen... Merezki izan zuen".

Gutxieneko kirola

Field target-a zale gutxieneko kirola da eta, ondorioz, horrek baditu beste arazo batzuk. Esate baterako, armen kontrako aurreiritziak. "Informazio falta handia dago. Jendeak uste du aire konprimatuzko armak hilgarriak direla, baina ez da egia. Alde batetik, gizakiok garelako tiro egiten dugunak; bestetik, ez dugulako balarik erabiltzen, balinak baizik; istripuak gertatzen dira gure kirolean, eta besteetan ere bai. Gure iritziz, segurtasuna funtsezkoa da eta arauak hitzez hitz betetzen ditugu. Gainera, armek segurtasuneko babesgai-luak dituzte eta ia ezinezkoa da tiroa berez irtetea. Argi dago eskopeta arrisku-

tsua dela umeen eskuetan, baina baita botila bat lixiba edo labanak ere. Gure armek ez dute potentzia handirik".

Honekin batera, tiratzaileek badute beste arazo handi bat: ez dute entrenatzeko lekurik. "Normalean urrun dauden inguruak aukeratzen ditugu eta hara astean behin joaten saiatzen gara". Toki-falta horri konponbidea emateko, Roberto harremanetan jarri da Zamudioko Udala-rekin, eta tiro-zelaia egitea proposatu dio. Eta posible bada, baita erakustaldi bat ere. "Ahal den beste egitea gustatuko litzaidake; ea zer esaten didaten Udalekoek. Nik kirola hedatu eta entrenatzeko leku aproposa –egokitutakoa eta seguru– sortu nahi dut, egunero edo astero hara joateko: orain ia ezkutuan egin behar dugu...". Gogor entrenatzen badute txapel gehiago ekarriko dituzte Zamudio-ra. Hurrengo aukera Ingalaterran izango dute, maiatzean, bertako tiratzaile onen aurka. Baietz asmatu!



ESKAINTZAK

Abelino Arraindegia
Itsasotik zure mahaira

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

urdaitegia delicatessen
amalur

Hestebeteak
Jakiak prestatzen ditugu
Haragia
Izoztuak
Ogia
Produktu bereziak

Uribe, 14 - 48160 DERIO
94 612 19 55
www.amalurderio.com
Info@amalurderio.com

Askotaniko pintxoak
Plater konbinatuak
8:00etatik irekia

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Centro Dental
Txorierri

Irribarre
distiratsuak

Miraflores B. beheko - 48150 - Sondika (geltokierien aurrean)
Tel.: 944 711 839
Larrietak: 970 985 585

IMG
AEGON

elekma

Txorierri etorbidea, 25-3.N • 48180 LOIU
T: 944 539 232
www.elekma.es

etxekotresnen outlet-a

GOIKO TABERNA
Jatetxea
Emiliano

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartze eta ezkontzak
- Parteki zabalak
- Menu bereziak asteburuetan
- Ekimen eremutako platerak
- Itxialdi asteburuetan

B.º Geroiltza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Zure gorputza prest,
UDABERRIRAKO

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

KIMAKO
Landarak

UDABERRIA
da zure etxean

Goitioltza 59 • 48196 Lezama (BIZKAIA) • Tel: 954 455 51 00 • Faxa: 94 455 61 77

BAR RAFI

Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO
T: 94 406 08 08

ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Jaunartze eta
Ezkontzetarako
OPARIAK

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

TRIPPY TABERNA
zure girorik onena

Beheko kalea
DERIO

URAS
Estetika eta masajea

ESTRESA
KANPORA

Aita Patxi Ugalde, 14 beheko
Tel: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Irudimena atera dugu kalera...

a: Juanjo Ortiz

Eta kolorez, munstroz, animaliaz, iratxo, astronautaz, estralurtarraz... bete dira Txorierriko kaleak, tabernak, eskolak... Eta batez ere haserrez eta gaitzespenez. Aurtengoak oso errebindikazio handiko inauteriak izan direlako. Osasun eta hezkuntza arloko murrizketak, usteleria-kasuak, kaleratzeak, langabezia, Barcenasen gutun-azalak... txorierriar askok irudimena atera dute kalera eta gogaituta daudela adierazi dute. Eta hori umore-dosi handiak erabilita. Euskal Herrian eta Estatuan euria barra-barra egiten duen arren, umorea ez dugu lako galdu.



HORTZ KLINIKA



Idoia Zubieta

Osasun-entzua & Horta-entzua
HORTZ-INTPLANTAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
14.000.000.000.000.000

Dr. Aretza kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, beheko
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelamagoli ind. P-7
48170 Zamudio (Bizkaia)

Restaurante

JANA-JATETxea



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

18.korrika æk BADATOR

EMAN EUSKARA
ELKARRI

Andoaindik
Baionara
Martxoaren
14tik 24ra



www.korrika.org

Google play

Available on the
App Store



t: Itxaso Marina

Korrika euskerearen aldeko lasterketa erraldoia martxoaren 14an aterako da Andoainetik eta martxoaren 24an ailegauko da Baionara. Euskerearen lekukoa 18. aldiz pasauko da eskuz esku Euskal Herri osoko geografiaren zehar eta, "Eman euskara elkarri" lelopean, bi mila kilometro baino gehiago egingo ditu. Txorierri martxoaren 21ean helduko da. Larrabetzutik 14:40ean sartu eta handik Erandioigoikora abiauko da; gitxi gorabehera 26 kilometro egingo ditu gurean.

Txepetxa AEK euskaltegiko arduradunek Korrika 18ren gaineko zehetasunak emon deuskuez, eta datozen egunetarako herrietako Korrika-batzordeek, euskeratik eta taldeek antolatu dituen ekintzak be jakinarazo deuskuez. Hori otsailaren 22an Zamudiotarren izandako aurkezpen batean egin dabe.

Azaldu daben bezala, batzordeek eta taldeek oso behar handia egin dabe eta herri guztietan jarrera positiboa eta prestutasuna erakutsi dabe. Gainera, parte-hartzea gero eta handiagoa dala azpimarratu dabe, eta aurten irudimena ezinbesteko lanabesa izan dala. Halan, ia dirurik ez dabela, gauza izan dira oso kultur egitarau zabal bat antolatzeko. Txorierriko Korrika Kulturala ekitaldiz beteta etorriko jaku: erropea desfilea, antzezlanak, jaiak, bazkariak, afariak, jolasak, tailerrak... Baina bereziki lehenengo aldiz egingo dan ekintza bat nabarmendu dabe: pintxo-poteo maratona. "Ekintza gazteek eurek proponidu dabe eta oso erakarpen

Alkarri emongo deutsagu euskerea

Korrikak 18. aldiz zehartuko ditu Txorierriko herriak eta kaleak martxoaren 21ean

*Ekitaldi herrikoiak
izango dira eta espero
da han ahalik eta
txorierritar gehienek
parte hartzea*

garrantzitsua izan da guretzat. Egun osoko ekitaldia izango da eta, hareen inplikazioa erakustez gainera, gazteek lotsa barik eta modu alai baten adierazoko dabe euskeraz bizitzeko aukerea". Korrikaren haritik antolatutako ekitaldi guztiak oso herrikoiak izango dira eta arduradunek espero dabe han ahalik eta txorierritar gehienek parte hartzea.

Guztione laguntzea

Euskerearen aldeko lasterketea arratsaldean ailegauko da Txorierri. Lagun asko beharrean egongo dira eta ardura-

dunek deia egin dabe antolatze-beharretan ahal dauan guztiak lagundu daian. Herrietako eragileen eta udaltzainen laguntzea be ezinbestekoa izango da. "Baina, bestalde, eskolako umeek nagusiak batera parte hartu ahaliko dabe benetako Korrikan, eta hori oso inportantea da guretzat. Herri guztietan leku bat atonduko da umeek han arazo barik korrika egin ahal daian".

Behar eta ilusino handiko egunak dira martxokoak. Eta Korrikaren ardura-dunek horreek ahalik eta lagun gehienak konpartitzea gura leukie, "nahiz eta guzurrak iruditu, asko Korrika hareen albotik pasau arte ez diralako enteretan". Era berean, aitatu dabe diru eske ibilteko oso momentu ona ez dala, baina gogoraz deuskue AEK-k oraindino diru eskatzeko beharra daukala, euren jarduerak aurrera egitea gura badabe. Horregaitik, Korrikaz gainera, irakasleei zein ikasleei laguntzeko beste modu batzuk martxan jarteko eskatu deutsee Gobernuari eta inguruko agintariei.

Korrika Kulturala, Txorierrin

Martxoak 1, barikua

–**Larrabetzu:** Erropa desfilea, Hori bai gaztetxean.

Martxoak 2, zapatua

–**Derio:** *Lingua Navajorum* antzezla-na, 20:00etan, Gurea Aretoan. Tximintx euskera alkartearen eskutik. Sarrerak, AEKn eta Kultur Birikan salgai.

Martxoak 3, domeka

–**Derio:** Horma-irudia pintatea. Umei zein nagusiei zuzendutako ekintza.

Martxoak 7, eguena

–**Sondika:** Laburbira film laburren emonaldia Altzora euskera alkartearen eskutik, 19:00etan, Kultur Aretoan. Euskeraz ekoiztutako zortzi film labur ikusteko aukerea egongo da: *Beerbug*, *Desentxufatuak*, *Deust et machina*, *Oinaze egoitzak*, *Tortila*, *Elkartea*, *Hamaiketako* eta *Berriro igo nauzu*.

Martxoak 8, barikua

–**Erandiogoikoa:** Jai handia egingo da eta, besteak beste, dantzak, musikea, koreografiak eta Mikel Zarateren taldearen emonaldia izango dira han. Saski bat be zozketatuko da.

–**Zamudio:** Kuestazioa.

Martxoak 9, zapatua

–**Txorierrri:** Pintxo-poteo maratokia. Autobus bat ipiniko da jentea eroateko herri batetik bestera, pintxo-poteoa Txorierrin zehar egin daien. Izena emotea martxoaren 6ra arte egin daiteke Txepetxa AEKn (94 454 39 67) edo pintxopoteomaratokia@gmail.com helbidera mezua bialduta. Parte-hartzaileek 18 urte baino gehiago euki behar ditue edo gurasoen baimena aurkeztu. Korrikalariz janzteko eta Korrika petoa eroateko eskatzen da. Informazio gehiago: www.facebook.com/txorierrrikoak.txepetxa-euskaltegia. Herri guztietan egingo dira ekintzak poteolariei harrerea egin eta eguna girotzeko.

–**Sondika eta Derio:** Kuestazioa, 12:00etan.

–**Lezama:** Jaia, 19:00etan. Umeentzako jolasak egongo dira, nagusien-



tzako spinning-a eta aerobica, musikea, herriko taldeen emonaldia...

Martxoak 10, domeka

–**Larrabetzu:** Kuestazioa eta materiala salgai.

Martxoak 16, zapatua

–**Erandiogoikoa:** Afaria, musikea eta zozketak.

–**Sondika:** Bazkaria, 14:30etan.

–**Larrabetzu:** Bazkaria eskolan, enkantea eta kontzertuak Hori bai gaztetxean.

Martxoak 17, domeka

–**Loiu:** Umeentzako jolasak, tailerrak eta Korrika txikia, herriko plazan.

–**Derio:** Puzgarriak, tailerrak eta lur-irudia pintatea, 11:00tan, Sollube eta Beheko kaleetan. Eguraldi txarra balego, frontoian.

Bazkaria, 14:30etan, txokoan.

Martxoak 19, martitzena

–**Derio:** Bertso Korrika, 19:00etan, Kultur Birikan. Itallen Larrabetzuko bertso eskolaren eskutik.

Martxoak 21, eguena

–**Txorierrri:** Korrika.

–**Sondika:** Txokolatadea eta Gau-jaia Trapero del río taldeagaz.

Martxoak 22, barikua

–**Lezama eta Zamudio:** Bertso-afaria egingo da Lagatzu Zamudioko euskera alkartearen eskutik, eta han Etxahun Lekue, Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia arituko dira bat-batean. Txartelak Zamudioko leku honeetan eros daitezke: Estankoan, Mari Elinean, Batzokian eta Susterrak tabernan. Era berean, 94 452 34 47 telefono zenbakira deitu daiteke edo mezu bat agindu lagatzu@lagatzu.org helbidera.

Martxoak 24, domeka

–**Txorierrri:** Autobusa jarriko da Baionara joateko.



Zamudio-Zugasti eta Txorierri (II)

t/a: Sabin Arana

Esan bezala, ohikoa zen leinuek haien arteko aliantzak ezkontzen bidez ixtea, izan ere, hala lortzen zuten haien ondasunak handiagotzea. Hordoño Zamudio eta Zugasti Maria Frantziska Martiartu eta Getxotarrarekin ezkondu zen, baina Maria Frantziska hil zen eta Hordoño Bilboko Petronila Zurbano eta Zurbarandarrarekin ezkondu zen bigarren aldiz. Petronilak 15 urte zituen. Gorabehera handiko ezkontza izan zen, eta, agirietan ondo azalduta ez dagoen arren, Bizkaiko korrejidorea ezkontza saihesten ahalegindu zen. Hordoñoren aberastasun-gosearen

Aurreko alean, Zamudio-Zugasti leinuaren historia kontatzen hasi ginen, eta zenbait ataletan aurkeztuko genizuela aipatu genuen. Esku artean duzue bigarren atala

aurka egitearren, badaezpada, edo Petronilaren gurasoek horrela eskatu ziotelako. Neskaren gurasoak Amerikan zeuden, Gaztelako erregeak enkomienda bat (kolonizazio-sistema) eman zielako. Dirutza handia egin zuten enkomienda horri esker, eta Amerikan eraiki zituzten etxeez

gainera, Zurbaran dorretxea berreraiki zuten Bilbon, Santiago katedralaren aurrean. Hordoñok aitaginarrebaren dirua administratzeko asmoa zuen, errentak ondo aprobetxatuko zituelakoan, baina horretan denboraldi labur batez ibili zen, emaztea ezkondu ziren urte berean hil zelako. Petronila seme-alabarik gabe hil zen. Are gehiago, baliteke erditzean bertan hil izana, garai hartan ohikoa baitzen. Gerta ala gerta, kontua da ezkontzaren bidez lortutako errentagarritasuna amaitu egin zela Hordoñorentzat.

Baina gure Hordoño "ezkongaia" zen lanbidez, eta, errenta potoloago baten bila zebilela, Ana Manrique Osoriorekin



Calatravako zaldunen ordenako armarria. Ordena hau 1158. urtean sortu zen Gaztelako erreinuan. Egoitza Calatravako gaztelu berrian zuen, Ciudad Realean. Hordoño Zamudio eta Zugasti ordenako priorea izan zen, eta soldata ederra jasotzen zuen horregatik.




Gondomarreko kondeak etxe hau erosi zuen Valladolid hirian eta berreraiki egin zuen. Udal liburutegia da gaur egun, baina Erdiko balkoian oraindik ikusgai dago sendiaren armarria. Gondomar hiria Galizian dago; beraz, bertan ere badago sendiaren jatorria.

ezkontzeko aukera eduki zuen. Ezkontza honen bitartez ondasun ikusgarriak lortu ez bazuen ere, Anaren familiak Madrilgo gortean zituen harremanek abantaila handia ekarri zioten. Bizkaian ere izan zituen postu politikoak, erregearen gortera hurreratu ondoren Calatravako zaldunen ordenako nagusi edo priore izendatu zutelako. Errenta ederra ere eman zioten. Baina ez dezagun pentsa irabazten zituen errentekin nahikoa zuela, ordaindu gabeko zorrek hainbat aldiz epaitegira eraman baitzuten. Hala ere, bere aurka egitea ez zen erraza, handikiek zituzten abantailak askotan salbuesten zutelako.

Hordoñok eta Anak lau seme-alaba eduki zituzten: Tomás, Diego, Lorenzo eta Leonor. Lehenengo biak ezkontzeko adina bete baino lehen hil ziren eta Lorenzo Amerikan desagertu zen. Ondorioz, Leonor oinordeko bihurtu zen. Emakumea Francisco Novoa y Feixo (edo Feijoo) jeneralarekin ezkondu zen.

Gerora, Txorierriko familia honen ondorengoak gehienbat Sevillan, Madrilan eta Kordoban finkatu ziren eta gero eta harreman estuagoa lortu zuten Espainiako handiekin. Horrela, bada, Leonorri Montalboko markesa titulua eman zioten 1630. urtean, eta haren alaba, Frantziska, Diego Sarmiento Toledo y Acuñaarekin ezkondu zen, zeina Gondomarreko kondea baitzen. Handik aurrera, Txorierriko familia tituluak pilatzen hasi zen.

Gondomarreko lehenengo kondea Felipe II. eta III. Gaztelako erregeen enbaxadorea izan zen Ingalaterran, Frantzia eta Alemanian. Haren semea, Gondomarreko bigarren kondea, aitaren ospeari esker bizi izan zen ondo. Bestalde, Zamudio eta Zugasti leinuak Gondomarreko kondearekin bat egiteak handikiekin harremana izateko aukera ekarri zien. Erregearen gorteari inguruan zeuden, beraz, toki egokian ezkontza onuragarriak adosteko.



Maria de Salazar Enriquez: Luis de Salazar eta Nafarroako Maria Enriquezen alaba izan zen. Azken hau Enriquez de Lacarra-Nabarra eta Gariaren alaba izan zen, zeina Ablitaseko zortzigarren jauna izan baitzen.

Pedro de Toledo eta Leiva: Leivako zarpigarren jauna izan zen; Manceraiko lehenengo markesa (1623); Galiziako eta Peruko erregeordea; enbaxadorea, Alemanian eta Venezian; Felipe III.-aren gerra-kontseilukoa; eta Esparragosako komendadorea. 1650. urtean hil zen.

Manuel de Guzman: Gonzalo Nuñez de Guzmanen semea; Toralgo zortzigarren jauna; eta Aviadoseko jauna, Boñarreko bailaran.

Francisca Maria de Toledo Osorio Feijoo de Novoa eta Leiva: Belvisko markesa; Montalboko lehenengo markesa, 1630. urtean; Zamudio eta Zugastiko anderea.

Diego Sarmiento de Acuña eta Sotomayor: Diego de Sarmiento de Acuñaaren semea; Gondomarreko bigarren kondea; Baionako gobernadorea; eta Santiagoko zalduna. Bere aita Gondomarreko bigarren jauna eta lehenengo kondea izan zen; Toro eta Veste hirietako korrejidorea; aholkularia, Sevillan; eta enbaxadorea, Ingalaterran eta Frantzia. Costanza de Acuña eta Avellanadarekin ezkondu zen.

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna
Leizola plaza, 8 - Lehen (Zamudio)
94 455 73 07

ESTILISTA
EVA ARDINES
AmAr
Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara
Urte Plaza, 1 - Bidea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19; (Aurreko txanda)

Euskal jokoa, bihotzean

t: Itxaso Marina

Koldoren esanetan, pelota alkarte baten funtzionamentua gauza barria zan batzarkide guztientzat, eta lehenengo urtea hainbat kontu ikasten emon behar izan eben: administrazio-gaiei zein kirolari berari lotutakoak. "Ondoren, buru-belarri sartu ginan egitasmoan. Guk administrazio arloko gauzak kudeatzen doguz eta enpresa batek kirol arloaren ardura dauka: entrenatzailea, lehiaketak..."

Alkarteak helburu bi daukaz: alde batetik, umeek kirola egitea, "eta euskeraz, gainera"; eta bestetik, pelotariren bat ateratea. "Ume gehienek futbola egiten dabe, baina badagoz ume batzuk beste kirol baten jardun gurago dabenak, eta us-te dogu azken hareei be aukera bat emon behar jakela. Gure eretxiz, eskupelotea oso egokia da umeek kirola egin daien eta horregaitik gagoz hemen. Frontoia dogu herrian, pelotea euskal kirola da... kirol honen alde derrigorrean egin behar, beraz!"

Arbolantxa alkartean 21 pelotari gaztetxu dagoz, bost urtetik bederatzi urte bitartekoak. Danak mutilak dira eta benjamin kategorian jokatzen dabe. Bikote bat kimu kategoriara pasauko da datorren urtean. "Orain dala urte batzuk neska bi izan ziran taldean, baina itxi egin eben. Beste herri batzuetako neskek paletan jokatzeke taldea osotu dabela jakin dogu, eta geuk be pala taldea sortzea pentsau dogu. Hau da, beste aukera bat emon, ea lagun gehiago animaten dan... Dana dala, pala talde hori ez litzateke neskentzat bakarrik izango, gura dauen guztiak hartu ahal izango leuke parte bertan. Guk ez dogu sexu-diskriminaziorik egiten: gura dauenak egin leike eskupelotan gurean; eta azkenean pala tal-

ARBOLANTXA ZAMUDIOKO PELOTA ALKARTEA

Alkartea orain urte batzuk sortu bazan be, 2010. urtean barriztu zan guztiz haren zuzendaritza-batzordea, taldeari beste norabide bat emoteko. Koldo Zabala Zamudioko Pelota Alkarteko presidenteordea da gaur egun, eta zuzendaritza-batzordearen asmoen, filosofiaren eta han dabilzan umeen ilusinoen barri emon deusku.



dea sortzen bada, gura dauena be ibili ahal izango da bertan".

Oraindino oso gaztetxoak diran arren, alkartean badagoz hiruzpalau ume gailentzen diranak. Noraino ailegauko diran, bihar-etzi jakingo dogun gauzea da hori; halanda be, aitatu behar dogu Uribe Kostako Eskola arteko Txapelketan parte

hartu dabela eta han euren onena emon dabela. Txapelketea eragingarri polita da umeentzat, baina, Koldoren eretxiz, laburra, azarotik otsailera artekoa bakarrik dalako. Horregaitik, zuzendaritza-batzordea beste aukera batzuk aztertzen dabil, urteko beste hilabeteetan be umeek bul-tzagarri bat euki daien. "Zamudio maila-

Alkarteak helburu bi daukaz: umeek kirola egitea, euskeraz, eta pelotariren bat ateratea

Eskolan 21 pelotari gaztetxu dagoz, bost urtetik bederatzi urte bitartekoak

Gaztetxoak onena emoten dabilz Uribe Kostako Eskola arteko Txapelketan



ko txapelketa bat antolatzeke asmoa daukagu. Hori martxotik aurrera jokatu litzateke, eta gauzek ondo urteten bada-be, izan leiteke Txorierriko beste pelota alkarteakaz berba egitea eta datorren urterako-edo eskualde mailako txapelketa bat antolatzea”.

Jazkera barria

Pelota alkarteak Zamudio Udaletik jasoten dau diru-laguntza bat, eta, eskola-kirola bultzatzen dabenez, espero dabe datorren urtean Bizkaiko Foru Aldundiak be laguntza apur bat emotea. “Umeek ez dabe inongo kuotarik ordaintzen, argi daukagulako kirola egiteko aukerea doan izan behar dala, eta euskeraz. Tartean diru-laguntzea badago, ez dogu uste inori kirola egiteagaitik kobrau beharko deusagunik. Eta are gitxiago gu gabilzan mailea kontuan hartzen badogu. Beste gauza bat izango litzateke etorkizunean goiko kategorietan egongo bagina eta fitxak bete beharko balira”. Alkarteak ekin-tza batzuk egiten ditu urtean zehar; esaterako, Pelotearen Eguna eta tailerrak, eta partidak antolatzen ditu bai afizionau mailan, bai eskolan dagozan umeen artean. Eta, gaztetxoak pelotan jokatu ahal izateko beharrezkoa dan guztia bete ondoren, diru-laguntzatik dirurik lotzen bajake, urteeraren bat egiteko erabilten dabe. “Umeak pelota-partidak ikustera eroan doguz, esate baterako, Miribillara eta Markinara”.

Edozein alkarte aurrera eroateko, behar handia egin behar da, musu-truk eta zaletasunari ordu asko eskiniz. Arbolan-

txa Zamudioko Pelota Alkarteak halan dabilz, jo eta ke, egitasmoak aurrera egin daian eta umeek kirola egiteko beste aukera bat euki daian. “Oso pozgarria da umeak ondo dagozala ikustea, ondo pasetan dabela, barre egiten dabela... Adibidez, orain dala gitxi arte jazkera ofizial barik jokatu dabe, baina babesle bat

topau dogu, eta dagoaneko alkarteak badauka bere arropeta. Orduan, umeek ikusten dabe eurak be telebistan urteten daben pelotarien moduan janzten dirala, eta horri esker beste garrantzi bat emoten deusie egiten daben kirolari. Benetako kirola dala pentsaten dabe eta beste era baten hartzen dabe”.



Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknologia

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
- Produktzioa Programatzeko Teknikaria
- Automatizazioa eta Informatikako Sistemetako Teknikaria
- Salmanten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Teknikaria

Berbalagun proiektua oso zabala da eta bertan denetariko lagunak daude: neskak, mutilak, helduak, gazteak, euskaldun berriak, euskaldun zaharrak... Gal-detegia egin diegu hiru berbalaguni, bakoitzaren esperientzia jasotzeko: euskaldun berria eta gaztea den bati, Arrate; eta euskaldun zahar nagusiago biri, Josune eta Txaro.

ARRATE, 20 urte (Lezama)

1) Euskaltegia nago. Ikasturte honetan erabaki dut euskara gehiago jakin nahi dudala eta Berbalagun proiektuan hasi naiz. Derioko Kultur Birikan biltzen naiz euskaltegiko beste kide batzuekin, astelehenero. Batez ere solasean ibiltzen gara: asteburuan egin duguna kontatzen diogu elkarri, esate baterako.

2) Gure taldea oso ona da: gehienak emakumezkoak gara, eta soilik gizonetako bi. Adinari dagokionez, denetarik dago. Ni gazteenetariko bat naiz, baina oso ondo esaten didate.

3) Barre egiten dugu eta primeran pasatzen dugu.

4) Ni lotsatia naiz eta taldeak irekia goa izateko aukera ematen dit. Era bere-

an, hitz egiteko orduan egiten ditugun akatsak taldean bertan zuzentzen ditugu.

5) Asteburu oso bat pasatuko nuke taldekideekin.

6) Talde asko daude eta hainbat jarduera egiten dira, edozeinen neurria. Guztiok pasatzen dugu ondo.

JOSUNE, 50 urte (Zamudio)

1) Ni euskaldun zaharra naz eta baturra ikasi gura neban. Horregaitik nago hemen, beste euskaldunei ulertu ahal izateko (kar, kar). Aurten hasi naz.

2) Euskaltegiko lagunak dira.

3) Oso pozik nago. Ez dot lotsarik euki, ez nire euskerarengaitik, ez adina-

rengaitik. Bizkaieraz, arazorik ez, baina batueraz arazoak ditut, ia-ia ez dot piperrik ulertzen (kar, kar). Gatxa iruditut jat batuera ikastea, baina konpontzen naz beste berbalagunakaz.

4) Hobeto hitz egiten lagundu deust.

5) Hainbat gauza egiten ditugu. Ez neuke ezer aldatuko.

6) Gu oso pozik gagoz, eta jenteak ondo pasaten dau.

TXARO, 67 urte (Derio)

1) Tximintx Derioko euskera alkarteko kidea naz, eta haren bidez hasi nintzan Berbalagun proiektuan. Ea berba egitera animaten garan... Nire taldea Derion



Josunek eta Arratek primeran pasatzen dute berlagunekin hitz egiten.



Txaro euskaldun zaharra da.

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

IRATXO gozotegia

tarta pertsonalizatuak
trufak
telak
pastelak
pastak

Mikel Zurutu, 2 - 5. larrea • Sondika, 48150 • 94 453 89 19

Goiri'78 s.l. Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

batzen da, eguaztenero. Astean behin batzen gara, baina batzuetan taldekidea-kaz gelditzen naz kartetan jolasteko eta euskeraz be egiten dogu.

2) Taldea jator-jatorra da. Danetariko lagunak dagoz: ni baino nagusiagoa dan bat, gazteagoak...

3) Oso pozik nago Berbalagun taldean.

4) Batez be batueraz berba egiten ikasi dot. Oso gatxa izan da batuera ikas-tea, baina gustura egin dot. Orain biz-kaieraz eta apur bat batueraz egiten dot. Berbalagun guztiek laguntza emon deus-te.

5) Gagozan moduan ondo gagoz. Gauza asko egiten dogu (kar, kar). Jentea-gaz gustura nago kafea hartzen, museoe-tara joaten... Niri euskerea eta bertoko ohiturak itzel gustetan jataz: dantzak eta abar. Hareek batzeko aukerea emoten deuskue herritarroi eta hori oso inportan-tea da. Berbalagun proiektuan guztiok gagoz pozik, euskaldun barriak zein eus-kaldun zaharrak. Guztiontzat da aberas-garria.

6) Kartetan jolastea gustetan jat, eta halan egiten genduan hasieran, baina batzuek itxi egin eben azkenean.



Afaltzen, kantatzen... Euskaraz egiten

Euskaraz egiteak ez gaitu inoiz berbalagunok nekaten: geure hiz-kuntza maite dugu, eta ahal dugun bakoitzean batzen gara euskararen bidez primeran pasatzeko. Eta horixe egin genuen otsailaren 8an, Lezamako txokoa, Goitioltza auzoan. Guztira, 80 berbalagun eta eus-kaltzale batu ginen bertan, eta afal-du be ederto afaldu genuen: haste-ko, entsalada eta odolostea; geroa-go, bakailaoa piperrekin; eta buka-tzeko, postrea. Bapo jan eta gero, afalondo ederra izan genuen, Taber-na Ibiltariaren musikari esker. Musi-kariek euskal kantak jo zituzten eta guztiok poz-pozik abestu genituen kantok. Oso giro polita izan genuen gaua osoan. Lezaman, berriro ere euskaldunak garela ospatzeko au-ker a izan genuen. Ez da azken aldia izango, ez horixe!



**berba
lagun**

INFORMAZIOA:
Telefona:
635 75 35 95
E-mail:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun

ERREKA **ONDO**
JAT **ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



**Garmendia
ardoak**

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

Nire Autocasion **NA**

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com



*Euskara, jokoak, kirola...
uztartuko dituzte, ondo
pasatzen duten
bitartean gazteak
zientziaz eta teknologiaz
busti daitezten*

dituzte mekanikoki erabiltzen ikasten diren erremintak, eta beharrezkoak diren baliabideen oinarriak ikusi ondoren, arazoaren aurrean nola jokatu asmatu behar dute eta, era berean, irtenbide guztien artean bat aukeratu

Jantzi burua!

t: Xabier Díaz, BTEKeko zuzendaria

Gaur egun, asko dira aisiaz gozatzeko gure esku dauden ekintzak, asko dira ondo pasatu eta lagunekin egoteko aukerak, eta BTEKen ere bagatuz gazteei zuzendutako ekintza berri batekin.

Aurtengo Pazko-astearen, gure ateari zabaldutako dizkiegu bederatzi urtetik 16

*Bederatzi urtetik 16
urte bitarteko
gazteentzako
kanpamentuak
antolatu dira BTEKen,
Pazko-asterako*

urte bitarteko gazteei, BTEK Kanp kanpamentuek goza dezaten. Asteartetik ostiralera, goiz eta arratsalde, euskara, jokoak, tailerrak, kirola eta teknologia uztartuko dituzte, ondo pasatzen duten bitartean, jakin-minaz, elkarlanaz eta zientziaz eta teknologiaz busti daitezten. Gazteek era dibertigarri batean gaitasun ezberdinak garatzea dugu helburu nagusitzat, eta horretarako, hainbat arlotan batutako askotariko ekintzak egingo dira: joko eta jolasak, kirol ekintzak, ingumenari lotutako dinamikak, proiektu teknologikoak eta Parkean dauden enpresa eta teknologia zentroetara bisitak, banaka batzuk baino ez aipatzearren.

Erabiliko den metodologia jolasen, ikerketan eta arazoaren konponbidean egongo da oinarrituta, eta bereziki talde-lana eta proaktibitatea sustatuko dira. Hala, proiektu teknologikoa garatzeko orduan, gazteek albo batera utzi beharko

Hezkuntza etengabekoa

Proiektu honetan, MITek garatutako Scratch softwarea erabiliko dugu, haren ezaugarriak egokiak baitira planteatzen dugun metodologia aurrera eramateko. Programazioaren ikuspuntutik erraza bada ere, software honek aukera asko eskaintzen dizkio bertan sakondu nahi duenari. Gainera, euskaraz dago eta askea da, edonork etxeko ordenagailuan eta sistema ezberdinak erabiliz instalatzeko modukoa (Linux, Windows, Mac...).

Aurreko artikulua batean aipatu genuen bezala, harrobia zaindu behar dugu, etorkizun duin bat izan dezagun eta izan dezaten nahi badugu. Eta horretarako, ez daukagu hezkuntza baino baliabide hobeagorik. Esandakoa bezain argi dugu hezkuntza etengabekoa dela eta nonahi gertatzen dela, eta hartaz era dibertigarri batean baliatu behar garela, euren eta, bide batez, geure burua janzteko.

Informazio gehiago:

www.btek.org
www.parque-tecnologico.net

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txerri etorbidea, 9 - Loria | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 94 45
info@dentatzaiznduz.com | www.dentatzaiznduz.com

MODA
INFANTIL

Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefona: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 Loria - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiolasai@gmail.com

Geldoetako eskola: Erregela eta berakatza

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Geldoetako eskolea 1923an zabaldu zan eta 1967an itxi. Harrezkero, 26 urtez bertan behera egon da. Orain, Zamudio-ko udalak eraikuntza zaharra barriztatu eta txoko bihurtu dau. Inaugurazino ekitaldiak 2013ko zezeilaren 3an ospatu dira.

Eskolako kroniketan, ia beti irakasleek egiten dabe berba, nekez ikasleek. Gaur, oster, 1948an jaio zan ikaslearen anekdotea dakargu hona; gerra aurreko maistren jokabide euskaltzalea hurrengorako lagata.

“Bikandi zan gure maistrea –Angela Dolores Vicandi Marin, Geldoetan 1953tik 1962ra arte izan zan irakasle, Amagoia Gezuragak *Zamudiorainen* idazten daue-
nez–. Lantzean **reglazo** batzuk emoten euskuzan. Gero, esaten euskun **reglea** berakatzagaz **untetea** dala ona; apurtu egiten dala jokeran. Berakatzagaz igurdi ezker, apurtu egiten dala **reglea**, baina ez zan **apurtan**. Usaina bai, usain itzela botaten eban **regleak**.

Geuk emoten geuntsan berakatza **regleari** bera ez dagoan artean; guk eka-
rri berakatza etxetik eta igurdi haregaz.



Berakatz burua eroan, erdibitu eta igurdi **reglea**.

Reglea mahai gainean egoten zan eta maistrea joaten zanean suetera, gu izten ginduzan **zeozer** egiten. Guk igurdi-
keran igarriko euskun harek guri, baina tira!

Bazkaria berantzako egiteko joaten zan sukaldera, noizik behinean begitu-
ten”. Hara hemen J. M.k zortzi urte euka-

zanean bizitako pasadizoa. Ostein, ber-
balagun onaren teknika erabiliz, osotu
egiten dau Geldoetako eskolearen ingu-
ruko istorioa: “Bikandi maistrea Zazpi
Kaleetakoa zan. Trenean etorten zan
Derioraino eta gero oinez Geldoetaraino
egun guztietan”.

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 00
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cole, 117
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Jatetxea **SAN ISIDRO**
EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOZOGINTZA AFARITA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukalderitza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18
Mungai de etorbidea, 25
48160 DERIO

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikusiak, orokortasun
Asanblaje limpiak
Mantenimendu garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinu asanblaje garbitasunak
Ikastetxeak
Zabon bilaketa
Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone-
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

t i k
t a k
EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
poirena
ogia
edaria
9€
Bestorrena 5, Bahea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

harategia - urdalategia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZIA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Etxeko sukaldaritza



Panakota frutu gorriakaz

Maite Lekerika, sukaldaria / a: eladerezo.com

Osagaiak (6-8 lagunentzat):

- Litro erdi esne
- Litro erdi esnegain
- 75 g azukre
- Koilarakada bat bainila-azukre
- Gelatina neutro sobre bi
- 250-300 g frutu gorriak: mailukiak, arabiak, andere-mahatsak...

Prestateko errea:

Esne apur bat gordeko dogu, bertan gelatina urtzeko. Bestea esnegaineagaz batera ipiniko dogu berotzen. Azukerea eta bainila-azukerea gehituko doguz. Irakiten hasten danean, gelatina botako dogu (ondo urtuta). Surtatik kendu, eta on-

do eragingo dogu. Moldera bota eta epeltzen danean, hozkailura sartuko dogu, hotzitu arte.

Frutu gorriak garbitu eta txikituko doguz. Horreek era bitan gehitu deikeoguz panakoteari. Alde batetik, frutuak moldearen hondoan ipini eta hareen gainean lehen azaldutako nahastea bota daikegu. Epeltzen danean, hozkailura sartuko dogu. Bestetik, nahastea hotzitzen danean, haren gainean ipiniko doguz frutak, eta azukre apur bat be bai. Hozkailura sartuko dogu barriro, eta han ordu erdian eukiko dogu, harik eta frutak beratzen diran arte. Zerbiduteko orduan, gailera batzuk apurtu (gurinezkoak badira hobetu) eta gainetik bota geinkez.

Txipiroi ezustekoa,
gula eta pikillo
piperrakaz**Osagaiak:**

- Kinpula bat
- Piper berde bat
- 4 pikillo piper
- Kalabazin bat
- 4 txipiroi
- 6 otarrainxka
- Gula bandeja erdia
- Berakatz bi
- Oliba orioa
- Ogi txigortua

Prestateko errea:

Betegarria egiteko, honeek ipiniko doguz suezitzen: kinpulea, piper berdea, kalabazina eta otarrainxkak. Txipiroia betegarriaz bete eta zotzategaz itxiko dogu. Plantxan erreko dogu. Ogi txigortu xerra baten pikillo piper bat ipiniko dogu, eta haren gainean, txipiroia. Gulak berakatzakaz salteau eta txipiroiaren gainean botako doguz.



**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA 2
TELFOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagatik

**KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA**

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel: 944 54 29 56

**MARMOLGINTZA
GOYO**

SUKALDE-GAINEKOAK OIRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 10-8 mabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 82 93 - Fax: 94 454 50 63

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A.
DERIO
Telefona: 944 543 705

**ELORRIETA
INSTALACIONES**

ETXE - ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel: 94 454 52 88



Hileko galdera

Komenigarria da bizkarrean kolpeak ematea, eztarriko trabamendua kentzeko?

Janaria-edo kontrako eztarrira joaten zaigunean, bizkarrean kolpeak emateko ohitura dugu, baina hori batzuetan ez da batere komenigarria. Are gehiago, arazoa larriagotu egin dezake. Asfixia mota horrek oso egoera larria ekar dezake eta heldu bati laguntza emateko, urrats hauei jarraitu behar diegu: besoak gaixoaren gerrikoaren inguruan ipini eta ukabila zilborraren gainean itxi behar dugu. Ostean, presioa egin behar dugu sabelean, gogor, harik eta eztarriko trabamendua kentzen den arte.

Sudokua

			9	3			1	
			8	4			5	
	1	8		6	5			
9		4					8	
3				5				9
			3				4	1
	8	3						5
						7	9	

3	6	7	6	8	5	2	4	1
7	8	3	1	9	4	2	6	5
6	9	5	3	2	7	8	4	1
8	5	1	6	7	9	3	2	4
3	2	6	4	5	8	1	7	9
9	7	4	2	1	3	5	8	6
4	1	8	7	6	5	9	3	2
2	3	9	8	4	1	6	5	7
5	6	7	9	3	2	4	1	8

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unbea despaindegia
Estetika
Ordufagi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrikoritate duen
-Especialitatea: umeak

Erakusketak

Sondika

- > "El poeta y el artista". Martxoaren 5etik apirilaren 4ra, Erakusketa gelan.
- > D'Artez. Martxoaren 4tik apirilaren 2ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Derio

- > Nazioarteko jardunaldiak: elikadura-burujabetza. Martxoaren 1ean eta 2an, Kultur Birikan. Tokiko agenda 21 eta EHNEK antolatua.
- > Bosgarren edukiontzia. Martxoaren 7an, 19:00etan, Kultur Birikan.
- > Abegia, Done Jakue bidean. Martxoaren 12an, 19:30etan, Kultur Birikan. Untza mendi taldeak.

Larrabetzu

- > Bosgarren edukiontzia. Martxoaren 5ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > Literaturaz berbetan: *Elurretazalea eta Zenbat lur behar ditu gizon batek?* liburuak. Martxoaren 7an, 20:00etan, Anguleri kultur etxean. Arrekikili euskara elkarteak antolatua.
- > Goiener kooperatibaren aurkezpena. Martxoaren 13an, 19:30etan, Anguleri kultur etxean.
- > Konposta egitea. Martxoaren 20an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.



Ikastaroak

Zamudio

- > Udal ikastaroetan eta txakurrentzako abilitate eskolan izena emateko epea: martxoaren 27ra arte.

Sondika

- > Udal ikastaroetan eta lorategiak, bal-koiak eta landareak egoki zaintzeko ikastaroan izena emateko epea: martxoaren 11tik 15era.

Larrabetzu

- > Margolaritza ikastaroan izena emateko epea: martxoaren 4tik 20ra, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Derio

- > *Gazta zati bat* dokumentala. Martxoaren 15ean, 19:00etan, Kultur Birikan. Tximintx euskara taldeak antolatua.
- > *Bosgarren solairua* antzezlan. Martxoaren 22an, 20:30etan, Gurea Aretoan.

Larrabetzu

- > Udaberriko kontzertuak. Martxoaren 9an, 20:00etan, Andra Mari elizan. Herri oihua eta Makulu ken taldeen kontzertua. Martxoaren 16an, 21:00etan, Hori bai gaztetxean.
- > Musika eskolako ikasleen kontzertua. Martxoaren 19an, 20:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > Trikitixa, alboka eta pandero emanaldia. Martxoaren 22an, 19:30etan, Anguleri kultur etxean.

Irteerak

Txorierri

- > Lezamako trenbide zaharra. Martxoaren 24an, 09:15ean, Derioko tren geltokian (oinez); eta 09:15ean, Kurtze Lezamako auzoan (bizikletaz). Zorribike, Arroeta eta Bizitxorierri taldeek antolatua.

Sondika

- > Berretin – Sarria. Martxoaren 10ean. Izena emateko epea: martxoaren 7ra arte, liburutegian.

Derio

- > Bakio – Armintza. Martxoaren 10ean, 07:30etan, Nagusien etxean. Untza mendi taldeak antolatua.
- > Gernika – Larrabetzu. Martxoaren 17an, 08:00etan, Nagusien etxean. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Teknologia Parkeko Zientzia Museoa. Martxoaren 14an, 17:00etan.

Lezama

- > Baltzola. Martxoaren 17an, 09:30etan, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Eretza. Martxoaren 24an, 08:30etan, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Las Batuecas eta Sierra Francia (Salamanca). Aste Santuan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Kirolak

Zamudio

- > Ezagutu zure bizikleta! ekintza: bide-segurtasuna, janzkera eta elikadura egokia. Martxoaren 23an, 16:30etan, Agirre Lehendakaria plazan.

Bestelakoak

Derio

- > Tokiko Agenda 21. Martxoaren 13an, 19:30etan, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Lezama

- > Zuhaitz Eguna. Martxoaren 17an, 11:00etan, plazan.

Larrabetzu

- > "Oporrak bakean" egitasmoan parte hartzeko izena ematea: martxoaren 22ra arte, liburutegian.
- > Irakurketa kluba. Martxoaren 22an, arratsaldean, Anguleri kultur etxean.

-INGLESA ESKOLA
 -MASA OLSUTAK
 -ARTURKETA OFIZIAK
 -ENTRETO PRESTAKUNTZA
 -MESTIZO OLSUTAK
 -PRESTAKUNTZA ENPRESEAN
 -ESKOLAZ KANPOKO KLASEAK
 -ITZULPEN ZERBITZUA

www.am-formacion.com
 info@am-formacion.com

Garaioltza 120 D
 48106 LEZAMA
 T: 94 455 64 69

Erremonteri 16
 48150 SONDIKA
 T: 94 453 64 08

Oskola eskolitzen dugu:
 odolosteak, txorizoa,
 txistorra, solomoak...
 Plater aurrekoizinatuz

Golri, 4 - 48150
 Sondika - Bizkaia
 94 453 16 17

Aseguru agentea
 Allianz
 609 473 746

Mitxina, 6. beheko
 48150 Sondika-Bizkaia
 T.: 94 453 16 07
 Faxa: 94 453 60 27

AURTENETXE, S.A.

www.aurtenetxe.es



**2011-2012KO
KANPAINAREN
PRODUKTUEN
LIKIDAZIOA**

**2011-2012KO
PRODUKTAK,**

**PREZIO
BEREZIETAN**



Grillo



Grillo

Kubota



Kubota



Kubota

Grillo

HONDA
POWER EQUIPMENT

VIKING

STIHL

Silky

Oleo-Mac

H
HUSTLER
TURF EQUIPMENT

AMBROGIO
ROBOT

Cub Cadet

Kubota

OREC

NIUBO

Sogeon Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxe: 94 455 65 66

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxe: 94 427 29 18



ASCENSORES ANBOTO

www.ascensoresanboto.com



24
ordu

94 674 18 98



Bulegoa: 94 653 19 19
Sakelakoa: 674 494 883
info@ascensoresanboto.com



igogailuak instalatzeko konponbide integralak

SANGRONIZ BIDEA, 6
4V MODULUA - 48150 SONDIKA

LEIZAOLA LEHENDAKARIA PLAZA
1. LONJA - 48170 ZAMUDIO

BELAKO, 2 ELKARTEGIA - LUISENE 2
A2 BULEGOA - 48100 MUNGIA



URTE BATEKO
MANTENTZE-LANAK,
DOAN